

# Berrigara



## Kirol sariak

Herriko kirolarien lana aitortzeko ordua



# UGARTE

## AROSZTEGIA



### ALTZARIAK DEKORAZIOA

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak



San Juan, 1 (Barruti) BERGARA.  
Telefona eta faxa: 76 54 91

**11 urtetik gorako gaztetxoek oraindik aukera daukatzue Gartzela Zabarrera etortzeko.**

### **Aukera ugari dituzue...**

Txistorradak, irteerak (patinatzerak, mendira...), ekintza bereziak, musika entzuteko txokoa, jolasak, mahai jokoak, futbolina, ping-ponga, dantzak, ikastaroak (gitarra, antzerkia...)

**EKAINERA ARTE ZABALIK ZAPATU ETA  
DOMEKETAN 16:00ETATIK 20:00ETARA.**



**Anima zaitez! Egin karneta!**



Informazioa:  
Gartzela Zabarra  
Tf. 76 36 61.





# Hitz zuriak

Arantzazu Loidi / Kazetaria

**A**tal honetan behin (edo behar bada noizean behin) idazteko hitza eman nuenean, batez ere herriko gaiet buruz aritzeko espazioa zela ulertu nuen. Baina zer idatzi pentsatzen jarri naizenean, herritik gorago eta behegokoa den gai batek harrapatzen nau behin eta berriz. Gure Herriaren egoera gure herrira ekarri eta nire baitako herri txikian duen oihartzuna entzuten saiatzea.

Beste herri batzuen izenak entzun ditugu azken astean: Legazpi, Erandio, Zarautz... baina Bergarak ere badu udal-letxea, zinegotziak (orain PPKorik ez, baina pauso honetan, hurrengoan seguru), kutxazainak eta dendak. Badirudi denok garelako honelakoak gure parean gertatzearen beldur, baina pare-parean erori ezik ez dugu itxuraz ahoa zabaltzeko keinurik egingo. Zer gertaera behar dugu, bada, jarrerak mugitzen hasteko?

Preso daudenen egoerak ere oso hurbiletik harrapatzen nau, baina azkenaldiko gertaerek berebiziko egonezina sortzen didatela ezin dut ukatu. Gertaerek eurek sortzen didaten egonezina, ezberdin pentsatzeagatik "alde" bietakoek jasotzen duten zigor zentzugabea... eta horrek guztiak hurbilean

*"Seguro nago ideiak utzi eta norbere sentipen benetakoak garbi azaldu eta albokoarenak zinez entzuteko jarreran jartzen garenean, asko aldatuko direla gauzak"*

duen eragina: familian, herrian, lagun edo lankide artean ezer gertatuko ez balitz bezala gaiari ihes egitea, negar ixila dario mina, amorru bihurtu den mina, anai-arreben arteko ezin ikusia eta ikusi ezina.

Zail egiten zait sentitzen dudana argumentu politiko bihurtzea, eta horregatik nahiago dut sentipenak adieraztea. Izan ere, horixe egin behar genukela uste dut: hurbilekoekin barruko korapilo hori askatzen hasi.

Seguro nago ideiak utzi eta norbere sentipen benetakoak garbi azaldu eta albokoarenak zinez entzuteko jarreran jartzen garenean, asko aldatuko direla gauzak. Nik horretan sinesten dut, herri/Herri honetan elkarri/Elkarri entzun eta konponbidea bilatzeko egiten diren ahaleginetan, kontzientziaz jokatzeko saioetan, eta norberaren trintxera mugitzeko erreparorik ezean. Gainerako guztiak, hitz zuriak dira. B

■ barruan



**Aitziber Azkondo**

Kazetaria

*"New York-en, unibertsitatetik irtetzen direnek lana erraz topatzen dute"*

8. orrialdean.



**Redy Cristiani**

Tigre hezitzailea

*"Jaiotzetik ezagutzean, errezagoa izango da tigrekumeak zirko lanerako gertatzea"*

17. orrialdean.



**Jose Luis Irigoien**

Argazkilaria

*"Euskal Herriko argazki taldeek oso lan garrantzitsua egiten dute"*

26. orrialdean.

## Orain dela urteak

### BERGARAN GERTATUA

**1785.** Urtarrilaren 13an Peñafloidako kontea hil zen Bergaran.

**1898.** Urtarrilaren 11n Jose Julian Guimon jaio zen. Bergaran, Bidekurutzeta 27an, jaio zen baina gazterik joan zen familiarekin Eibarrera bizitzera. Oso mediku ospetsua, Basurto-ko ospitaleko buru izatera iritsi zen. Zazpi seme-alaba izan zituen, tartean, Julen Guimon UCDko eta APko parlamentaria izan zena.


### EUSKAL HERRIAN GERTATUA

**811.** Urtarrilaren 11n euskaldunek Karlomagno azpiratu zuten Altabizkar mendietan.

**1475.** Urtarrilaren 14ean Espainiako Errege Katolikoek Gipuzkoako Foruak berretsi zituzten.

## Eguraldia

Andoni Aizpurua



Zapatuan eguraldiak hobera egingo du, haizeak hego-mendebaldetik joko du eta laino batzuk izan arren, ez du euririk egingo. Domekan, okerrera egingo du. Goiz partean haize zakarrak izango ditugu. Iluntzean euri arriskua izango da.

## Ilargiaren aldiak



Ilgora: Urtarrilak 5



Ilbete: Urtarrilak 12



Ilbehera: Urtarrilak 20



Ilberri: Urtarrilak 28

## Eguzkia

Domekan



Sortu: 07:35



Gorde: 17:16

## Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
<b>Eguena 8</b>	18	3	-
<b>Eguakitza 9</b>	17	2	-
<b>Zapatua 10</b>	14	4	-
<b>Domeka 11</b>	15	6	-
<b>Astelehena 12</b>	17	9	3,6
<b>Martitzena 13</b>	15	9	2,8
<b>Eguastena 14</b>	12	5	4,5

## zozketak

### BONO LOTO

#### Eguakitza 9

3-9-19-22-30-44 (osag.26/er.8)

#### Astelehena 12

4-7-8-10-36-41 (osag.39/er.1)

#### Martitzena 13

8-17-18-20-33-44 (osag.25/er.2)

#### Eguaztena 14

7-11-18-23-30-41 (osag.13/er.2)

### PRIMITIVA

#### Eguena 8

1-9-17-26-29-37 (osag.7/er.9)

#### Zapatua 10

5-11-12-18-42-46 (osag.31/er.8)

#### Domeka 4 Gordo

3-8-18-30-34-47 (osag.37/er.1)

### ONCE

**Eguakitza 9** (S. kupoitzarra: 147) 42.632

**Astelehena 12** 81.503

**Martitzena 13** 06.990

**Eguaztena 14** 88.192

### BESTE BATZUK

**Amnistiaren aldeko batzordea**

528 / 489 / 143

**Etxeberria erlojutegia**

4.203 / 2.447

## farmaziak

### Eguakitza 16

MOZOS. 22:00ak arte  
San Pedro 4, Bergara. Tf. 76 12 15  
ESPAÑOL. 22:00etatik aurrera  
Iturrioz 17, Arrasate. Tf. 79 14 88

### Zapatua 17

CAMACHO. 22:00ak arte  
Oxirondo 4, Bergara. Tf. 76 11 74  
CORCUERA. 22:00etatik aurrera  
Elkano 2, Arrasate. Tf. 79 22 26

### Domeka 18

CAMACHO. 22:00ak arte  
Oxirondo 4, Bergara Tf. 76 11 74  
IRIZAR. 22:00etatik aurrera  
Erguin 11, Arrasate Tf. 79 12 39

### Astelehena 19

PUY. 22:00ak arte  
Barrenkalea 25, Bergara Tf. 78 16 87  
AMEZUA. 22:00etatik aurrera  
S. Marina 32, Arrasate Tf. 79 09 74

### Martitzena 20

GUALLAR. 22:00ak arte  
San Antonio 5, Bergara Tf. 76 11 05  
ZABALA. 22:00etatik aurrera  
Zarugalde, Arrasate Tf. 79 14 88

### Eguaztena 21

ESTELLA. 22:00ak arte  
Matxiategi 5, Bergara Tf. 76 19 63  
RUIZ. 22:00etatik aurrera  
Magdalena 31, Arrasate Tf. 79 14 09

### Eguena 22

MOZOS. 22:00ak arte  
San Pedro 4, Bergara Tf. 76 12 15  
MORALES. 22:00etatik aurrera  
Araba, Arrasate Tf. 79 18 65

## ogia

### Domeka 11: Ogizun

## Hamaika ikusteko jaio ginen

### Fish and chips izozkia

Ingelesak benetan dira bereziak. Oraingoan, marrubi, nata edo bainilla gustodun izozkiekin aspertuta edo, zapore berri bat asmatu dute: arraina patatekin edo fish and chips gustodun izozkia.

## Telefonoak

### Osasuna / Larrialdiak

SOS deiak	008
DYA	78 71 57
Gurutze Gorria	76 55 76
Larrialdiak	76 12 94
Anbulantzia	55 49 62
Osasun Etxea	76 24 40
Arrasateko ospitala	79 53 00
Asepeyo	76 16 43
Pakea	76 13 49
Alcer	76 12 62
Angiozarko medikua	78 90 27
Antzuolako medikua	76 62 23
HIES Ekimena	79 26 99
Odol emaleak	76 16 24
Udaltzaingoa	77 91 06
Ertzaintza	76 53 40
Suhiltzaileak	78 28 00

### Garraioak

Taxiak	76 19 50
RENFE	28 35 99
PESA	902 10 12 10
Euskotren	45 01 31

### Udala

Udaletxea	77 91 00
Euskara Zerbitzua	77 91 66
Kultur Etxea	77 91 58
Liburutegia	77 91 62
Kirol Zerbitzua	77 91 67
Igerilekuak	76 20 51
Mizpirualde Egoitza	76 13 68

### Prensa berriemaleak

Egin	76 45 52
El Diario Vasco	76 81 57
El Correo	76 10 90
Extra	75 10 59

### Bestelakoak

Epaitegia	76 14 92
Erregistroa	76 13 15
Notaritzia	76 10 73
Postetxea	76 26 85
Jubilatuena Etxea	76 21 40
Mendi Nekazaritza	76 25 47
Jardun	76 36 61
Musika Eskola	76 57 80
Xipizaro ludoteka	76 23 76
Bedelkar	76 04 68

■ jaiotakoak

**Aste honetan, Antzuola eta Bergaran ez da jaiotakoen erregistrorik egin.**

■ hildakoak

**BERGARA**

**Cecilia Bikuña Artolazabal**  
Urtarrilak 9, 82 urte  
**Nicolasa Urriategi Maiztegi**  
Urtarrilak 13, 79 urte

■ zorion agurrak



**Alex Errasti**  
31 urte bete zituen astelehenean. Zorionak laguneren partetik.



**Maite Aristegi**  
12 urte bete zituen domekan. Tate, zorionak!



**Ane Morillas**  
6 urte bete zituen urtarrilaren 15ean. Zorionak zure familiakoentz partez.

*Tarte honen bidez lagunak, senitatekoak edo beste norbait zoriondu edo agurtu nahi baduzu, deitu Berrigarara (76 03 97) edo zatoz bertara: Errotalde jauregia z/g. Anima zaitzez!*

■ mezak

<b>Santa Marina</b> Domekak: 11:30, 13:00. Zapatuak eta lanegunak: 19:30.	<b>San Lorentzo</b> Zapatuak: 20:30. <b>Angiozar</b> Domekak: 10:30. Eguakitza: 19:00.
<b>San Pedro</b> Domekak: 09:30, 12:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:00.	<b>Monja Zaharrak</b> Domekak: 19:30. Zapatuak eta lanegunak: 20:00.
<b>Osintxu</b> Domekak: 11:30. Zapatuak: 19:00.	<b>Mizpirualde</b> Domekak: 11:45. Zapatuak eta lanegunak: 11:45.
<b>Elosu</b> Domekak: 10:00.	<b>Mariaren Lagundia</b> Domekak: 10:00. Zapatuak eta lanegunak: 09:00.
<b>Ubera</b> Domekak: 10:30.	<b>Antzuola</b> Domekak: 09:00, 11:30. Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
<b>San Juan</b> Domekak: 11:00.	<b>Uzarraga</b> Domeka: 10:00.
<b>Basalgo</b> Domekak: 13:00.	
<b>San Prudentzio</b> Domekak: 10:30.	
<b>Labegariaeta</b> Domekak: 11:00.	

**URTE-MEZAK**  
**Santa Marina**  
Hileko 2. astean, domekan 11:30etan.  
**San Pedro**  
Hileko 3. astean, domekan 12:30etan.

**bertako berbak**

Juan Martin Elexpuru

**Haginak berdindu**

Ume izateari utzi. Animalixak, eta pertsonak ere bai, haginak altura desberdinak izaten dituzte txikitan, eta berdintzea, denak parean jartzea, heldutasunaren ezaugarri da.

*Ze uste dok pa? Aspaldi bardinddu jatazen neri agiñak gauza orrek sinisteko.*



JOSU OKINA

■ eskelak

**Natalia Urkiola Lazpiur**

*Hiltzeko jaio zen 1907-XI-30ean  
Bizitzeko hil zen 1997-I-22an*

Anaiak eta ahizpak, ilobek eta gainerako ahaideek haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta etor zaitezela


**1998ko urtarrilaren 18an eguerdiko 12:30etan San Pedron**  
egingo den urte-mezara.

*Aldez aurretik mila esker.*



**Xexili Bikuña Arolazabal**

Bergaran zendu zen  
1998ko urtarrilaren 9an.



*Familiaren partez mila esker azken agurra ematera etorri zineten denoi.*


Bere umore onak eta izaerak jarrai dezala gure artean.



**Marina Iturbe Telleria**

Lehen urteurreneko meza domekan, urtarrilak 18, eguerdiko 12:30etan, San Pedron.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerririk asko familiakoentz partez.*



■ PESA autobusak

**Bergara-Antzuola.** Lanegunak: 09:00, 11:00, 17:00, 18:00, 20:30. Zapatuak: 09:00, 18:00, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

**Antzuola-Bergara.** Lanegunak: 08:30, 09:40, 16:40, 17:15, 18:00, 20:40. Zapatuak: 08:30, 18:00, 20:40. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

**Bergara-Arrasate-Gasteiz.** Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 13:30, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 20:30, 21:15, 21:45. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 13:30, 14:15, 19:00, 19:15, 20:30, 21:15, 21:45. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15, 21:45.

**Gasteiz-Bergara.** Lanegunak: 05:45, 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta jai egunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

**Arrasate-Bergara.** Lanegunak: 06:05, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05. Domeka eta jaiegunak: 08:35, 09:50, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05.

**Bergara-Oñati.** Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak: 20:45. Domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.

**Oñati-Bergara.** Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.

**Bergara-Eibar.** Lanegunak: 06:20, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Zapatuak: 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

**Eibar-Bergara.** Lanegunak: 06:15, 07:00, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 15:00, 14:45, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 20:45, 21:00.

**Bergara-Donostia (Autopistatik).** Lanegunak: 06:45, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaiegunak: 10:05, 19:35.

**Bergara-Donostia (Tolosatik).** Lanegunetan: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00, 18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

**Donostia-Bergara (Autopistatik).** Lanegunak: 05:45, 08:15, 12:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaiegunak: 18:00, 20:45.

**Donostia-Bergara (Tolosatik).** Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 16:30.

**Bergara-Bilbo.** Lanegunak: 06:35, 08:40, 18:10. Zapatuak: 08:40, 18:10. Domeka eta jaiegunaak: 10:10, 18:10.

**Bilbo-Bergara.** Lanegunak: 08:00, 17:00. Zapatuak: 08:00, 17:00. Domeka eta jaiegunak: 09:00, 17:00.

## ANTZERKIA

► “La kabra tira al monte”, Karra Elejalderekin, zapatuan Oñatiko Santana antzokian 22:30etan. Domekan, 19:30etan, Arrasateko Amaian.

## ZIRKOA

► Holiday zirkoa Bergaran, Beheko Estazioan: emanaldiak, gaur ostirala 22:30etan; zapatuan 17:00 eta 19:15etan eta domekan 12:00, 17:00 eta 19:15etan.

## MUSIKA

► Zazpi eskale bihar Sorluzeko zinean. 23:00.

► Lorelei taldea ostegunean 22:00etan Pol-Polen.

## ERAKUSKETAK

► Martxe Aranaren oleo eta guache erakusketa Nahikari tabernan.

► “Laixetan, garixetan: basarrixa Eibarren” erakusketa Eibarreko Portalea aretoan. Urtarrilaren 26ra arte.

## IKASTAROAK

► Arrasateko Yoga Elkarteak yoga hasierako ikastaroak (otsailaren 2tik aurrera) eta topaketa pert-

### KONTZERTUA

## Def con dos eta Berri txarrak

### Jam aretoa

Noiz: gaur ostirala, 22:00etan. Sarrera: 1.000 pezeta aurretik eta 1.300 pezeta takilan.

Def con dos taldeak “Ultramemia” diskoa aurkeztuko du gaur gauean Jam aretoan. Azken lan honen aurretik beste lau disko kaleratu ditu talde madrildarrak: “2º asalto” (1989), “Tercer asalto” (1991), “Armas pal pueblo” (1993) eta “Alzheimer” (1995). Bere hasieratik hip-hop, hard-core edota heavy estiloen arteko nahasketa landu dute eta Estatuan ez ezik, Latinamerikan ere arrakasta handia lortu du Def con dos-ek. Hain zuzen, oraintsu Argentinan eta Mexikon jira bat burutu du taldeak. Def con dos taldearen musikak oihartzun handia lortu zuen Alex de la Iglesia zine zuzendariaren “Accion mutante” eta “El dia de la bestia” filmeetako soinu bandekin. Taldearen ezaugarrietako bat umorea dugu. Emakumeen iraultza aldarrikatzen dute oraingoan. A.M.V. Agrupacion de Mujeres Violentas izeneko taldeak sinaturiko idatzian, beraiekin bat egiteko eskatzen dute: “Nola da posible, XXI. mendearen atarian, emakumeen iraultza oraindik utopia izatea? Emakumeon iraultzan ez dago eroizentzat edota martirientzako lekurik eta arrazoia eta justizia dira erabiliko diren arma baxarrak. Beraz, gutxieneko intelijentzia baldin baduzu, elkartu gurekin”.

Madrildarren aurretik, Berri txarrak taldea arituko da telonero modura. Nafarrek, besteak beste, Sepultura taldearen eragina aitortu dute, baina erritmo gogorrez gain, melodiak eta rap estiloko kantua ere eskaintzen dituzte. Euren lehen diskoarekin salmenta zerrendetako lehen postuetan izan ditugu.



Ultramemia diskoa aurkeztuko du Def con dos taldeak.

sonaleko saioak (urtarrilaren 23tik aurrera) antolatatu ditu. 79 35 76.

► Arrasateko Gazte Zerbitzuaren txalaparta ikastaroa (urtarrilaren 30etik aurrera) eta dantza

karibearrei buruzkoa (otsailaren 23tik). 77 00 65.

► Bergarako Arteak eta Kulturak zentroaren ikastaroak otsailaren 2tik aurrera: arte eta eskulan tailerra (izen-ematea Ardatza eta

Igarza dendetan); erlajazioa eta arnasketa; yogaren hasitapena eta, azkenik, ahozko teknikari buruzkoa. Izen-ematea Etxeparen. Argibideak: 76 35 99.

► Leintz Zeramika

## LONBIDE ONETAKOAK

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
☎ 76 10 57



## 7 ESKALE

Unai Iturriaga  
Igor Elortza  
Josu Zabala...

Soraluzeko zineman.  
Urtarrilak 17 larunbata  
11etan.

BARRENKALEKO BLUESAK DISKOAREN AURKEZPENA

Eskolaren eskutik, dekorazio teknikei buruzko ikastaroa urtarrilaren 26tik aurrera. 7.000 pezeta.  
Argibideak: 79 87 95.

► Hezkide Eskolak "Nola aritzen gara talde lanean borondategile elkartetan?" izenburuko ikastaroa antolatuko du urtarrilaren 30ean eta 31n eta otsailaren 6an eta 7an. Izen-ematea urtarrilaren 23ra arte. 31 14 74.

## KINTADAK

► 1956an jaiotako enafaria hilaren 31n Txuringo jate-txean (76 48 63).

## DEIAK

► Odol ateraldia eguasteanean, hilak 21, 18:30etan Seminarioko lokalean.

► Beart elkartek ARCO arte feria ikustera joateko Madrilerira irteera antolatuko du. Irteera otsailaren 13an, 19:30etan, eta itzulera domekan, otsailak 15, 17:30etan. 16.500 pezeta. Izen-ematea hilaren 30a baino lehen 77 91 58 telefonoz (17:00- 21:00).

► Formigalera eskiatzera joateko irteerak antolatu ditu Pol-Pol Mendizale Taldeak ondoko fetxetan: urtarrilaren 24an eta 25ean; otsailaren 7an eta 8an; otsailaren 28an eta martxoaren 1ean; martxoaren 7an

eta 8an; martxoaren 19tik 22ra eta azkenik, Alpeetara irteera egingo da apirilaren 10etik 17ra. Argibideak eta izen-ematea Pol-Poleko bulegoan (76 48 51), astelehentik ostegunera, 19:00etatik 20:30etara.

► Gazteentzako mendi irteera urtarrilaren 25ean, Leitzarainera. Izen-ematea Pol-Polen.

► San Joxepe jubilatuen elkartek, hilaren 20an, San Sebastian egunean, Donostiara egun osoko irteera antolatu du. Argibideak 76 21 40 telefonoz.

## JAIK

► San Antoneko jaiak. Bihar zapatua, 10:30etan, ohizko igoera San Anton ermitara eta eliztarren eskeintzea; 11:00etan Meza Nagusia; 12:00etan txapligu eta zuzkarraberak; 16:00etan mus txapelketa Zubiberrin (izen-ematea orduerdian lehenago bertan); 18:00etan txapligu eta zuzkarraberak; 19:00etan txiki-teoa eta 21:00etan afaria Zubiberrin. Domekan, berriz, 12:00etan Umore Ona taldeak lagundutako Meza Nagusia; ordu berean krosa; ondoren salda, txorizoa eta ardoa guztientzat; 12:30etan herri kirolak; 13:00ean haurrentzako jolasak eta 14:00etan sari bana-keta.

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

#### BERGARA. Novedades

##### El pacificador

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

##### Solo en casa 3

Zapatua: 17:00, 19:30.

Domeka, matinala: 11:30.

##### Todos dicen I love you

Eguena, zine kluba: 20:00.

#### ARRASATE. Alai zinema

##### Mimic

Eguakitza: 19:00, 22:00.

##### George de la jungla

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena: 19:00, 21:30.

#### ARRASATE. Amaia

##### Dead man

Eguastena, zine-kluba: 21:30.

#### EIBAR. Unzaga

##### Titanic

Eguakitza: 18:30, 22:15.

Zapatua: 18:30, 22:15.

Domeka: 18:30, 22:15.

Astelehena: 18:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 18:30, 22:15.

#### EIBAR. Rialto

##### The Game

Eguakitza: 19:30, 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### OÑATI. Santana

##### Conspiracion

Eguakitza: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:30.

Astelehena: 19:30.

#### 101 Dalmatas

Domeka: 17:00.

#### Carretera perdida

Eguena, zine-kluba: 20:00.

#### ANTZUOLA. Gazinema

##### Daylight (Panico en el tunel)

Eguakitza: 22:00.

#### Casper, la primera aventura

Domeka: 16:30.

### EL PACIFICADOR

**Zuzendaria:** Mimi Leder.

**Aktoreak:** George Clooney eta Nicole Kidman.

Errusian gertatutako tren istripu baten ondorioz, leherketa nuklear bat izango da, izugarritzko kalteak eraginez. Nazioarteko agintariek istripuaren arduradunak topatzeari ekingo diote. *Julia Kelly* doktoreak eta *Thomas Devoe* koronelak bat egingo dute ikerkuntza lanetan.

### SOLO EN CASA 3

**Zuzendaria:** Raja Gosnell.

**Aktoreak:** Alex D. Linz eta Olek Krupa.

Protagonista berria takilan izugarritzko arrakasta lortu zuen filme honen hirugarren atalerako. Nazioarteko lapur talde batek balio handiko *chip* bat lapurtu ondoren, maleta galdu eta, konfusio bategatik, maleta Alexen etxera helduko da...

### TODOS DICEN I LOVE YOU


**Zuzendaria:** Woody Allen.

**Aktoreak:** Alan Alda, Drew Barrymore, Tim Roth, Julia Roberts.

Woody Allen zuzendariak kantuan jarri zituen hainbat aktore pantailan lehen aldiz. Ohi duenez, New York-eko familia eszentriko baten inguruan istorio ezberdinak lantzen ditu komedia musikal honetan: ezkontzearen dauden *Holden* eta *Skylar*-ena; *Skylar*-en gurasoena; *Skylar*-en ama banandutako idazlearena (Allen bera)...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

Tapizeriak  
Moketak  
Alfonbrak



Kruz Gallastegi 3, BERGARA ☎ 76 07 37

Eta orain  
gazteendako,  
umeendako eta ume  
jaioberriendako  
altzariak

**MUJIKA**  
**Jantzidenda**

Barrenkalea 1 Tf.: 76 29 91

**Aitziber Azkondok urtebete eman du New York-en, Manhattan-en, au pair moduan lanean. Lazko Erregenetan abiatu zen Estatu Batuetara ingelesa praktikatzera. Leioan kazetari ikasketak egin zituen eta ETB eta Berrigaran lanean ibilitakoa da.**

## AITZIBER AZKONDO

Kazetaria

*“New York-eko Euskal Etxean euskaldunak hartze-ko gogoz daude”*

**G.** Nola bururatu zitzazun New York-era joatea?

**E.** Ikasketak amaitu nituen eta hemen lanik ez nuen ez ingelesa praktikatzera erabaki nuen. Bi aukera nituen, karrera bat egitea edo au pair moduan familia batera umezain joatea. Columbiako unibertsitatean master bat egitea, esate baterako, oso garestia da eta aukera azkarrena *au pair* moduan familia batean bizitzera joatea zen. Zortzi eta hamabi urteko bi neska-mutiko zaindu eta etxeko lanean laguntzen nuen; bestalde, astean sei ordu egiten nituen ingeles ikastarotan.

**G.** Hango bizimoduak ez dauka zerikusirik hemengoarekin.

**E.** Sekulako aldaketa izan zen. Hasiera batean herri txiki batera joatea eskatu nuen agentzian, baina ez naiz damutzen. New York-era heldu eta sekulako aldaketa izan zen niretzat: bizitza beste edonon baino azkarrago egiten da eta bertakoen helburu nagusia dirua egitea da. Halere, esperientzia oso ona izan da.

**G.** Lan egiteko aukerarik badago?

**E.** Hemen baino gehiago. Dena den, lan on bat aurkitzeko esperientzia behar duzu eta behetik hasi behar duzu. Lan asko egin behar da, baina irabazi ere gehiago egiten da. Gainera, unibertsitatetik irtetzen direnek lana aurkitzen dute, zentzu horretan hemen bai-

no aukera gehiago dago. Bestalde, etorkinek zailtasun haundiagoak dituzte bisatua behar delako eta hori lortzeko kontratatu nahi zaituen enpresa zugar oso interesatuta egon behar da. Beste aukera bat loteria deitzen diotena da: urtero

*“New York-en eta Estatu Batuetan unibertsitatetik irtetzen direnek berehala topatzen dute lana”*



55.000 bisatu zozketatzen dira eta hori lortuz gero, bertako aukerak bertan lan egiteko aukera.

**G.** Herriminik sentituz duzu?

**E.** Bai, baina bertan lanean dauden euskaldunekin edo guraso euskaldunak dituztenekin ibili naiz. New York-eko Euskal Etxean ezagutu nituen eta irtetzeko geratzen ginen. Gabon jaiak eurekin pasatu ditut eta hemen ospatzen diren moduan ospatu ditugu.

**G.** Euskal Etxea non dago?

**E.** Brooklyn-en, poloniarren auzoan. Munduko euskal etxe guztien zerrenda, helbideak eta telefonak nituen eta New York-en nengoela bertara deitu nuen. Oso gustora hartu ninduten eta hemendik doan edozein euskaldun hartze-ko gogoz daude. Aberri egunean Connecticut-eko pilotari guztiak jaitsi ziren eta 200 bat lagun elkartu ginen. Hilean behin edo elkartzen ginen afariak egiteko. Irailean Abraham Olanok eta bere emaztearekin ere egon ginen.

**G.** Zer antolatzen dute?

**E.** Kultur elkarte bat da, presidente eta zuzendaritza batzorde eta guzti eta ehundik gora bazkide dira. Dantza talde bat dute, euskara klaseak ematen dituzte... era askotako iharduerak antolatzen dira. Egoitzan tabernatxo bat, afariak egiteko tokia, sukaldea, liburutegia eta kultur iharduerak antolatzeko gela haundi bat, antzoki moduko bat, dago goiko solairuan.

**G.** Euskaldunek badute pisurik bertako gizartean?

**E.** Ez gehiegi, baina, esate baterako, Julen Abio bilbotarra Canal 7 telebista kateko audientziarik handienetakoa duen showaren produktorea da. B



# Mikel Vicentek beste hiru hilabete eman beharko ditu Aita Mennin

## Lagunek laguntza kanpainarekin jarraituko dute

**Mikel Vicente 21 urteko bergarar gazteak, gutxienez, beste hiru hilabete eman beharko ditu Arrasateko Aita Menni ospitalean. Bere lagun eta familiartekoen arabera, "Mikelen egoerak hobera egin du azken asteetan nahiz eta, istripuak eraginda, ondorio psikikoak eta fisikoak izango dituen".**

Gogoratuko duzue, joan zen urriaren 6an, Mikel Vicentek kotxe istripu larria izan zuen Asier Latorre lagunarekin eta beste bi autoestopistekin Oñatitik zetorrela. Istripu horretan Hondarribiko gazte bat hil zen; Asier Latorrek ere zauri larriak jasan zituen baina dagoeneko bizitza normala egiten du eta orain errehabilitazioari ekin dio. Mikel Vicentek, berriz, bi hilabete inguru eman zuen ingresatuta Gasteizko Santiago ospitalean baina bere hobekuntzaren alde bertan gehiago egiterik ez zegoenez, familiak Arrasateko Aita Menni ospitale pribatura ekarzea erabaki zuen.

### Milioi bat hilero

Familiari garantia gehien eskaintzen zuen osasun zentrua zela iruditu zitzaion. Mikel Vicente Aita Mennin izatea, hilero, milioi bat pezetan inguru kostatzen da, beraz, honen aurrean, Mikelen kuadrilakoek laguntza



Argazkian, Mikel Vicenteren lagunak Mikelekin Arrasateko Aita Menni ospitalean.

jasotzeko kanpainari ekin zioten Gabonen aurretik. Besteak beste, azken asteotan, Mikelen aldeko zozketa eta futbol partidu bat antolatu dira eta abenduaren 24an ere Gabon kantak eskaintzera irten ziren Mikelen lagunak.

### Jaialdia

Bergararrek emandako laguntza eskertu nahi dute; "pozik gaude jendearen partetik jasotako erantzunarekin eta, Mikelen familiarekin batera, gauzak antolatzen jarraituko dugu. Horre-

la, urtarrilaren 31n edota otsailaren 1ean, herriko hainbat talderekin jaialdi bat antolatuko dugu Udal Pilotalekuan eta egun horretan bertan egingo da zozketa. Era berean, herriko harategien laguntzaz, txozna bat jarriko dugu Frontoian dirua jasotzeko. Jaialdirako sarrerak 1.000 pezetan jarriko dira salgai".

Bestalde, hil honen 24an Arrasateko futbol taldeak partidua jokatu du Arrasaten. Karnabaletan ere Musika Eskolarekin batera kontzertu bat antolatzeko asmoa daukate. Bien bitar-

tean, zozketarako boletoak salgai daude herriko taberna eta dendetan eta, nahi duten guztiek dirulaguntza emateko aukera daukate herriko bankuetxe eta aurrezki kutxetan irekitako kontu korrontetan.

Mikelen lagunak astero egoten dira berarekin Arrasaten eta euren hitzetan, "azkenaldian animatuago aurkitu dugu Mikel nahiz eta oraindik hanketan oso zauri larriak izan eta oroi-men aldetik hutsune batzuk agertu. Hobeto dago eta ea laister hona ekartzeko aukera dagoen...". B

**Datorren urtarrilaren 31n edo otsailaren 1ean herriko hainbat talderekin jaialdia egingo da Udal Pilotalekuan**



Deba Garaiko botikariek, gaueko guardiako farmazia iraunkorra Arrasaten jartzea proposatu dute.

## Gaueko guardiako farmazia Arrasaten jartzea proposatu da Bailarako botikarien asmoen kontra azaldu da Udala

**Farmaziek** gaueko zerbitzua herrian egunero ematea eskatu dio Bergarako Udalak Osakidetzari. Gogoratuko denez, orain dela bost urtetik Bergara eta Arrasateko farmazien artean txandaka antolatzen dute gaueko guardia zerbitzua, hileko lehenengo hamabostaldian Bergaran eta hurrengoan Arrasaten.

Halere, Osakidetza zerbitzu konpartitu horren aurka azaldu da eta aurtengo urtarriletik aurrera gaueko

guardia zerbitzuak herri ba-koitzean eman beharko direla jakinarazi zien Bergara eta Arrasateko botikariei. Gipuzkoako Botikarien Kolegioak, epea luzatzea eskatu zuen eta beste proposamen bat egin zion Osakidetzari: Deba Garaian gaueko guardiako farmazia bakarra jartzea Arrasaten. Zerbitzua Arrasateko bi farmazien artean kudeatuko lukete eta bailarako farmazia guztien artean ordainduko lukete. Bergarako Udala aukera ho-

rren aurka azaldu da, herritarrentzat orain dagoena baino txarragoa delako.

Deba Garaiko beste herrietan farmaziek gaueko guardia zerbitzua eskaintzen dute, Bergara eta Arrasaten bakarrik konpartitzen da zerbitzua. Beraz, ikusteko dago, Deba Garaiko Udalek, herritarrek eta Jaur-laritzak -erabakia hartzeko ahalmena duenak- botikarien proposamen berri honen aurrean zer postura hartzen duten. **B**

## Jose Ignacio Iruetagoienaren hilketaren kontra protesta

**EUDELen** deiari jarraituz, Jose Ignacio Iruetagoiena Zarautzeko PPko zinegotziaren hilketaren kontrako hamar minutuko kontzentrazio ixila egin zen astelehen eguerdian Udaletxe aurrean. Bertan, alkateak eta udal gobernu taldeko zinegotzi gehienek, udal langile batzuk eta hainbat herritarrek hartu zuten parte. 200 bat lagun bildu ziren.

## Langile Eskolaren hiru lanpostu eskaintza

**18 eta 23 urte** bitarteko langabetuentzat, igeltseritzako 2 lanpostu eta konfekzio industri-lerako lanpostu bat eskaintzen dira Langile Eskolatik. Apirilaren 30era arte ikasketak egingo dira eta maiatzetik aurrera, 18 hilabetetan zehar, INEMeko lan kontratoa- rekin lan egingo da. Interesatuta bazaude, pasa zaitez udaletxeko Enplegu eta Ongizate Zerbitzutik, astelehenetan goizeko 8etatik 13:00-tara bitartean.

  
gizon & emakume  
Barrenkalea 35 BERGARA

**TOKI-ONA**  
Bodegoia-taberna  
Eguneroko janariak / Txitxizotzak  
Kazolatxoak / Txabierroak  
Matxiategi 1 Tf. 76 39 53

  
Ileapaindegia  
Solariuma  
Bolu 51 Tf. 76 50 32

**ETXAGI**  
JATETXEA  
AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK,  
EGUNEROKO MENUA,  
GOSARIAK,  
BAZKARIAK...  
Masterreka 8 ☎ 76 53 12

# Herriko hainbat tokitan zorua asfaltatzeko bederatzi milioi pezeta bideartuko dira

**Herriko hainbat** tokitako zorua konpondu eta asfaltua botatzeari ekingo diote hil honen amaieran Udaleko langileek. Hondatuta dauden eta herritarrek gehien erabiltzen dituzten kaleetan egingo dira konponketak eta guztira 9 milioi pezeta inguru gastatuko ditu Udalak.

Bideberri, Usondo parkeko kaminoa, Ramon Maria Lilitik Ibargarairako bidea, San Martin ikastetxearen atzealdea eta Udal Euskaltegi aurreko kaminoa, Zabalotegi kalean, dira konponduko direnak.

San Martin ikastetxearen atzealdea konpontzen hasiak dira dagoeneko eta zo-

rua txukuntzeaz gain, estolderia eta argiteria ere konponduko dira, farola berriak

jarriz. Lanak bukatzen direnean, 37 autorentzako aparkalekua egokituko da. Lan

hauek egiteko aurrekontua 4 milioi eta erdi pezetakoa da. Zabalotegin, Mizpirualdetik dorrera arteko bidean, farola berriak jarriko dira, zoruan asfaltua botako da eta kalea zabaldu egingo da. Lan hauetarako hiru milioi eta erdi pezeta inguru bideratuko dira.

Udaleko langileek lehenengo egingo dituzten lanak, San Martin ikastetxearen atzealdeko obrak amaitu, Bideberriko arbola azpiko asfaltua bota, Usondoko kaminoa konpondu eta Ramon Maria Lilitik Ibargaraira doan kaminoa konpontzea izango dira. Obrak, seguruen, hil honen bukaeran hasiko dira.



Boni Laskurain kalea orain dela hilabete batzuk konpondu zuten. ARTXIBOA.

## Bainurako ordu gehiago Agorrosingo Udal Igerilekuetan

**Igerilekuen** barruko funtzionamenduan aldaketak izan dira eta erabiltzaileentzat ordutegi berria jarri da indarrean. Aurrerantzean, astebarruan, goizeko 7etatik 21:00 ak arte jarraian izango dira zabalik piszina. Zapatu, domeka eta jaiegunetan, osterara, 08:00etatik 19:00etara. Beraz, bai-

nurako ordu gehiago izango dituzte erabiltzaileek.

Bestalde, urteetan Agorrosingo piszinetan lanean jardun duten Klarita Lazpiur eta Benita Calvo jubilatu egin dira eta euren ordeza Aitor Irazola, Begoña Urbina eta Jaione Belastegi ari tuko dira aurrerantzean igerilekuetako sarreran.

## HBko Mahai Nazionalaren kartzelaratzearen mozioari ezetza

**HBren Mahai** Nazionalaren gartzelaratzearen kontra HBk aurkeztutako mozioa ez zuten onartu hiruko gobernuko alderdiek joan zen eguakitzean egin zen ez ohiko Plenoan.

Batzarra eguerdian egin zen eta HBko zinegotziek ez zuten parte hartu. Mozioak HBren Mahai Nazionala-

ren kartzelaratzea kritikatzearaz gain, kartzelaratzea ez zela gatazkari irtenbidea aurkitzeko bidea adierazten zen eta Udalbatzaren erabakia Madrilgo gobernu buruari, Barne Ministeritzari eta komunikabideei igortzea eskatzen zen. EAJ, EA eta PSE-EEko zinegotziek kontra bozkatu zuten.

**LAZKANO**

Oinetakoak

Barrenkalea 15  
☎ 76 25 03

**iletxo**

ileapaindegi mistoa

**BEGOÑA ARZELUS**

A. Fleming 7 BERGARA  
☎ 76 53 15

**PANA DE ROKUA  
TJATETXEAL**

Kontxi Idigoras

Asteburuetan  
bertako babak eta sabieskia

SALBADOR 10 ELGETA Tlf. 76 82 73

Paper pintatuak - Pinturak

**A. ZANGITU**

ORDUTEGI BERRIA:  
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 76 19 54 BERGARA  
IRU: ☎ 79 11 71 ARRASATE

# Berrigara

307 zenbakia,  
1998ko urtarrilak 16.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**  
**Telefona: 76 03 97. Faxa: 76 29 77**  
**E.mail: berrigar@sendanet.es**  
**Argitaratzailea: JARDUN Elkarte.**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.  
**Erredakzioa:** Edu Mendibil,  
Mikel Elkorobereziar, **Maketazioa:**  
Iñaki Iturbe. **Publizitatea:** Kristina  
Romero. **Harpidetz:** Gorka Elortza.  
**Testuen zuzenketak:** Estepan  
Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio**  
**konseilua:** Miguel Angel  
Elkorobereziar, Alex  
Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:**  
Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon  
Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.  
**Kolaboratzaileak:** Juan Martin  
Elxepuru, Josu Okina, Luis Mari  
Agirre, Imanol Sorondo.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop.  
Elk. (Zubillaga. Oñati).

Portadako argazkia:  
Agustin Gurrutxaga.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta  
iritzien erantzunkizunik.

**Erakunde hauen laguntza:**



Bergarako  
Udala



Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



Eusko  
Jaurlaritzako  
Kultura saila

## gutunak

**Iritzi, protesta edo desioaren bat adierazi nahi baduzu, bidal itzazu zure gutunak helbide hone-  
tara: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara, edo etorri bertara. Ez dira  
identifikazio gabeko gutunak onartuko.**

### DIMISIOA

Dimisioa aurkeztu, hori-  
xe da egin behar duguna.  
Gutun hau sinatzen dugu-  
nok, Labegarrietako Futbito  
Txapelketako Antolaketa  
Batzordean aritu garenok,  
dimisioa aurkeztu dugu.  
Honako hauek dira gure di-  
misioaren arrazoiak:

Bere garaian Ufala talde-  
ari puntuak kentzeko eraba-  
kia hartu zuen Antolaketa  
Batzordeak. Erabakia bat-  
zordea osatzen dugun bost  
kideen artean bozkatu ond-  
oren hartu zen. Halere,  
batzordekide batek, eraba-  
kia atzera bota eta Ufalari  
puntuak ez kentzea erabaki  
zuen handik aste batzuetara.

Txapelketako araudia ez  
betetzeagatik, hau da, txapel-  
ketan parte hartzeko  
nortasun agiria epearen bar-  
ruan entregatu ez zuen jok-  
alari batek partidu bat jok-  
katzeagatik, kendu zitzaiz-  
kion puntuak Ufala taldeari.  
Ufalari bezala, araudia haut-  
si zuten beste talde batzuei  
ere kendu zitzaizkien pun-

tuak eta talde horiek, ken-  
dutako puntuak erreklamatzeko  
eskubide osoa dute.


Bestalde, beste talde  
batzuetako hainbat jokalarik  
ezin izan du txapelketan  
parte hartu, nortasun agiria  
epearen barruan entregatu  
ez duelako; beren taldeek  
zigorrik ez jasotzeko ez du-  
te jokatu. Araudia hautsi  
zuen Ufala taldeari, ostera,  
kendutako puntuak eman  
egin zaizkio.

Honek guztiak txapelke-  
tako A, B eta C multzoetako  
sailkapenak aldarazi ditu  
eta lehen itzuliaren bukaerako  
sailkapen ofizialarekin  
ez gatoz bat.

Gutun honekin ez dugu  
Ufala taldearen jokaera kri-  
tikatu nahi eta kontu hone-  
tan nahi barik nahastuta  
gertatu bada, gure barkame-  
nak eskatu nahi dizkiogu.

*Pedro Zafra  
Carlos Romero  
Jose Joaquin Lopez  
Jose Javier Zabaleta  
(Antolaketa Batzordekoak)*

## tira biraka: gorka ortega & jon alvarez



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!



## Beharpenetan erosketarik egiteko aprobetxatzen duzu? Produktu onak prezio onean erosteko aukerarik badago?



**Mertxe Flores**

Ez, joaten naizenerako benetan produktu onak direnak salduta daudela pentsatzen dudalako. Gabonetan egiten ditut erosketak gehienak.



**Jose Luis Elozegi**

Ez, normalean erosketak egiteko denbora gutxi izaten dut eta gauza bat beharrezkoa zaidanean orduan erosten dut. Ez naiz beharpenen zain egoten.



**Margarita Gisasola**

Beti erosten duzu zerbait, jantziak normalean. Bergarako dendetan egiten ditut erosketak, bai Gabonetan eta bai beharpenetan ere. Aurkitzen dira gauzak.

**Gertaera edo ekintzaren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, deitu 76 03 97ra eta sail honetan idatziko dugu zuk esandakoa. Identifikatu gabeko mezuak ez dira onartuko.**

**Xabier Larrañagak** mezu bat laga digu telefonoan esanez Berrigarán astebururako iragartzen ditugun pelikulak gero, batzuetan, ez dituztela botatzen Novedades aretoan. Joan zen asteburuan Berrigarán "George de la jungla" luzemetraia botako zutela jarri genuela eta azkenean "Hercules" bota zutela. Arrazoa dauka Xabier Larrañagak, baina **Berrigaratik** esan nahi diogu pelikulen berri Novedades aretoko jabeak ematen digula eta azken orduan aldaketak baldin badaude, ezin dezakegula ezer egin, Novedadeseko jabearen arazoa dela, berak egiten baititu aldaketak.




**Felix Garcia**

Segun. Beharpenetan gauza interesgarriak aurkitzekotan, erosten ditut gauzak, jantziak batez ere. Gabon ostean ere erosketak interesgarriak egin daitezke.



**Irene Diaz de Gereñu**

Zerbait erosten dut bai, Bergaran bertan gehienetan. Zenbait erosketak Gabon ostera lagatzen dut, prezioan alde handia izaten baita, jantzietan batez ere.



**Ignacio Tabuenka**

Ez, ez dut batere erosten beharpenetan, engainu bat dirrela pentsatzen dut. Askotan saldu ezinda dituzten produktuak jartzen dituzte salgai eta ez da txollorik aurkitzen.

■ ikuspuntua: **juan antonio migura**

### Langabeen iraultza

Frantziako langabeak aspertu dira bete bako promesaz, subsidioaz justu-justu bizitzeaz, albistegietan portzentaia bat baino ez izateaz; gogaituta daude, eguna joan eta eguna etorri, irtenbiderik ezaz. Oso frantseza den izpiritua berreskuratu eta kalera irten dira eta argi gorria piztu dute Europako ongizate gizarteetan. %12,4ko langabezia duen gizartearen agintariak eta egitura ekonomikoak gehien kezkatzen dituen arazoa sortu da. Kolektiboa elkartu da eta ozenki aldarrikatu du bere eskubidea.



dituzte. Euskal Herrian, langabeen portzentaia Frantziako bikoitza da baina ez dago mobilizatorako animorik. Orain arte, alderdi politikoek, hauteskunde garaian, eta sindikatuek esperantza-mezuak zabaldu izan dizkiete langabeei eta sistemaren eskuzabal-

Frantsesak, Frantziako langabeak kasu honetan, abangoardian daude berriro, eta kontinenteko beste toki batzuetako kontzientziak iratzarri

tasunari esker bizi den jende-multzoa lasai geratu izan da. Langabeek bere ordezkariak behar dituzte, bere sortu behar dute beren interlokutoretza; ezin dute politikoen esfortzurik espero, haiek ere beren interesak baitituzte; eta ezin dira sindikatuen zain ere egon, nahikoa baitute lehengo lanpostuei eustearekin. Ia egunero diseinatzen dira langabeziaren kontrako planak, enplegua sortzeko politikak, eta borondate oneko hainbat proiektu, baina langabeak talde antolatutzat jotzen ez diren bitartean inork ez du ondasunen banaketa serioerik planteatuko. Presio-lobby bihurtu beharra dute eta, agian, egingo diete kasu pixka bat. **B**

■ asteko menua

## Bakailaoz betetako txanpinoiak

**OSAGAIK**  
(12 txanpinoi handirendako)

- 300 gramo izpitutako bakailao
- Limoi erdiren zukua
- Saltsa:
- 75 gramo irin.
- 75 gramo gurin.
- Litro erdi esne edo salda.
- Gatza, piperbeltza eta intxaur muskatua.



ELENA eta LUIS EZENARRO,  
*Gaspar jatetxeoak*

**PRESTAKETA**

- Koilarakada bat gazta birrindu.
- Koilarakada bat ogi birrindu.
- Txanpinoiak uretan ondo garbitu eta txapelak eta hankak bereizi.
- Limoi zukua ur apur batekin nahastu eta bertan hankak egosi, fin-fin txikitu eta salda geroko gorde.
- Bexamela gertatu irina, gurina eta salda erabiliaz; behar izanez gero, esne pixka bat bota gatza, piperbeltza eta intxaur muskatuarekin batera.
- Txikitutako hankak eta izpitutako bakailaoa saltsarekin nahastu.
- Txanpinoien txapelak bete nahastearekin, ogi eta gazta birrindua bota eta sartu labean 30 minutuz.

■ adituen esanetan

## Azterketetarako gomendioak

MIGUEL ANGEL ALVAREZ, *Ipintza Institutuko ikasketa burua*

Ez dago azterketak gertatzeko metodo majikorik baina gomendio batzuk eman daitezke. Ordugegi bat egitea adibidez oso ondo dator, ikasi behar dena aurretik ondo planifikatu beharra dago: ikasgai bakoitzari zenbat denbora dedikatuko diogun, ikasketa ordutegia zehaztu. Onena, ordu asko jarraian ikasten eman beharrean, egunean zehar ikasketa orduak zatitzea izaten da.

Bestalde, ikasketa non egingo dugun ere garrantzitsua da: zarata gabeko gela batean hobeto ikasiko dugu, ahal bada argi naturalarekin eta aireztatutako toki batean. Talde lanean ikasi bai-

no hobe da bakoitza bere kontu ikas-tea, hori bai, galderak eta zalantzak argituz. Horretarako komenigarria da apuntatzen joatea dauzkagun zalantzak eta azterketan garrantzia gehien izan dezaketen gauzak. Estudiatu eta gero errepasorako tarte bat lagatzea ere garrantzitsua da. Bukatzeko, azken orduak atsedenerako dedikatu behar dira eta, ahal bada, azterketara fresko joan, nekatu gabe.

Azterketa garaian kirol piskat egin edo pasiatu ere ondo etorriko da ikasketak momentu batez ahazteko, deskonektatzeko eta burua argi izateko. **B**


■ bergarako gordailutik

## NORK ETA NOIZ EGIN ZUEN AROSTEGI ETXEA

Imanol Sorondo

**A**rgazkian ikusten dugun etxe eder honen izena Arostegi da eta Barrenkalean dago. Nork, noiz eta noren aginduz egin zen esatera goaz. Datu horiek berri-berriak dira orain arte ez baitira jakin edo, behintzat, sekula adierazi.

Hona hemen datuak: Arostegi'tar Pedrok tratua egiten du 1531. urteko uztailaren 4an Azkarate'tar Pedro, bergarar harginarekin, etxe aurrea landutako harriz bukatzeko; gainaldeko errematea, harri urdinez, eskuaren arra bete neurrian atera behar zuen, txapel baten modura.



Tratua 10.000 maraberitan, hiru zatitan ematekoa, izenpetu zuten: lehenengoa, San Migeletan; bigarrena, Gabonetan eta hirugarrena, bukatutakoan. Azken ordaintzarekin batera, propina baten modura, arto-txiki anega bat eta hildako bi txerrikume emango zizkion.

Sarrerako atea eta leihoak egitekotan, berriz, Bergarako zur langile zen Elosu'tar Andres gelditu zen, horiek ere Arostegi'tar Pedoren aginduz. Gaur egun atea mantentzen da, leihoak aldatuta daude. Tratua 1533. urteko martxoaren 28an egin zen, urrezko 42 dukat ordaintzekotan.

Etxe ederra eta zurez landutako ate bitxia! **B**



## Berrigara berria

Aurreko ostiralean **Berrigara** berriztuaren aurkezpen ekitaldia izan zen Kartzela Zaharrean. Jende dexente hurbildu zen bertara, Berrigararen itxura berria gertu-gertutik ezagutzeko asmoz. **Andoni Etxeberria** Jarduneko presidentek zein **Eneko Azkarate** Berrigarako zuzendariak aldizkariak bere sorreratik izan duen hazkundera, bezero eta kolaboratzaileen garrantzia edota errebistak diseinu zein sekzioen aldetik izango dituen berrikuntzak azpimarratu zituzten. Aurkezpen ekitaldiari amaiera emateko luntxa banatu zen gerturatutakoaren artean. Ale berri on!



## Bedelkarreko kotxea

**Jose Manuel Urbietta** osintxuarrak eskuratu du **Bedelkar** herriko dendarien elkarteak bere bezeroen artean zozketatutako Opel Corsa kotxea. Saritutako boletoa 9.122 zenbakia izan genuen eta Jose Manuelek Osintxuko Euskalduna tabernan eskuratu zuen boletoa. Argazkian Jose Manuel Urbietta eta **Mari-sabel Goenaga** senar-emazteak saria jasotzen **Elsa Rodriguez** Bedelkarreko presidentearen eskutik. Alboan, **Sorkunde Galarraga**, Euskalduna tabernakoa. Zorionak!

## Azokako Gabonetako zozketa

Gabonetan, Oxirondoko azokako dendariak, Gabonetako bost saski eta mendiko bizikleta bat zozketatu zituzten bere bezeroen artean. Mendiko bizikleta **Rosarito Larrañagari** tokatu zitzaion eta **Mariasun Gardokik**, **Purita Ugaldek**, **Visitacion De la Cruzek**, **Begoña Izquierdok** eta **Maria Rodriguezek** saski bana eramán zuten. Argazkian Mariasun Gardoki eta Rosarito Larrañaga eskuratutako sariekin. Hori zortea, hori!



 BEREZITASUNAK:  
BIZKOTXOAK  
ERRELENOAK  
TOSTOIAK

**MUJIKAZOTEGIA**

Artekale, 3 BERGARA  
☎ 76 10 34

**AGIRREBEÑA**

oinetakoak  
arropa denda  
lenzeria

Urteaga 5 ☎ 76 18 29

**YAZKI**

UME GAZTE

Neska eta mutil

Irizar 3 Iburgari 8  
☎ 76 16 14 ☎ 76 54 73

**Aldoka**  
**Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



Aranerrika 9, behea  
BERGARA  
Tf. 76 51 20



# ZER DA KYOKUSHINKAI?

**Karate hitzak** kirol mota bat adierazten du, bere esanahirik ezagunenean. Jatorrizko hitza, gaur egunean jende gutxiak ezagutzen duena, aldiz, "Karate-Do" (Do=bidea) zen eta bazuen bere baitan Arte Martzialaren ideia.



**Oso zaila** izango litzateke orain dela mende batzuetako praktika gaur egunera ekartzea, baina bada estilo bat bera praktikatzan dutenen artean ondorengo ideia zabaldu nahi duena: ez direla kirol bat ikasten edo praktikatzan ari, Arte Martzial bat ikasten edo praktikatzan ari direla. Estilo hori Masutatsu Oyama (Kyokushinkai) korear jatorriko Maisu Japoniar Haundiak (10. Dan-a) sortu zuen.

**Maisu haundi** honen iritziak, estiloak ahalik eta gehien hurbildu behar du errealitate martzialera.

**Arte Martzial** honetako entrenamenduak gogorrek dira eta disziplinaz eta kemenez jardutea eskatzen dute. Hori ez da, jakina, goizetik gauera lortzen. Hasiera batean, ikasleak oso erronka txikiak jarri behar dizkio bere buruari: geratu aurretik, flexio bat edo sentadilla bat gehiago egitea, adibidez. Hala, printzipio xume baina oinarritzko

horiek jarraituz, lortuko du kyokushin-eko karatekaren ezaugarri nagusiak izatea: gorputz eta izaera sendoa. Horri Japonen "Osu no seishin" izena ematen zaio. Iraunkortasun izpiritua, esfortzurik haundiena (erresistentziaren mugarainokoa) garatzeko gaitasuna, esan nahi du horrek.

**Entrenamenduen** gogortasunak ez du Kyokushinkai familia honetan sartu nahi duen inor desanimatu behar. Gure Dojoan 5 urtetik 14ra bitarteko neska-mutikoak eta 15-45 urteko helduak ditugu eta, gure aldetik, honetan sartu nahi lukeen edozein pertsona animatzen dugu.

**Gure ustez**, karateka batek ez du helburu nagusizat besteak baino indartsuago edo trebeago izatea jarri behar. Besteak garaitzea eta suntsitzea ez da ohoragarria. Gizakiaren helbururik ankerrena da. Karateka nekez errespetatuko dute berekoia, edukazio txarrekoa edo astakiloa bada. Kyokushinkaian, bakoitzak bere bururekin tinkoa eta disziplinatua izaten eta besteekin tolerantziak eta errespetuz jokatzan ikasten da.

**Amaitzeko** esan dezagun Kyokushinkaia erregulartasunez praktikatzeko pertsonari

ematen dion gaitasun fisiko eta mentalak bizitzako beste arloetan ere irauten duela eta, horri esker, praktikatzan duenak superazio-izpiritu bat bereganatuko duela, bai Dojoan eta bai bere bizitza pribatuan ere azalduko duena.



**Karlos eta Aitor Albisua Uribarri**  
Karate Kyokushinkai-ko gerriko beltzak,  
2. eta 3. Dan-ak.  
Kyokushinkai-ko entrenatzaileak  
"Kata" eta "Knock-Down"-eko arbitro  
nazionalak.

E.K.O.-k (European Kyokushinkai Organization) eta egoitza Tokyon (Japon) duen I.K.O. (International Karate Organization Kyokushinkaikan) erakundeak abalaturako titulazioa.



97-11-22an Alicanteko Villenako Txapelketa Nazionalean parte hartu zutenak

**16-17urte:**

Jaime Martin, lehen postua

Vanesa Navas, bosgarren postua.

**14-15urte:**

Lorea Martin, bosgarren postua.



# Iritsi da zirkoa!

Tradizio familiarrari esker bizirik



**Garai batean zirko ikuskizuna ugari etortzen zen Bergarara eta zirkoaren etorrerak ikusmin handia pizten zuen herritarren artean. Baina zirkoaren sasoirik onenak joanak dira. Hala ere, oraindik ere badira, tradizio familiarrari jarraituz, betiko ikuskizun honi eusten diotenak. Aste honetan Holiday zirkoa iritsi zaigu herrira. EDU MENDIBIL**

**H**oliday zirkoan 40 lagun bizi dira eta, urte guztian zehar, Estatu-punta batetik bestera ibiltzen dira zirkoarekin. Ramon Sacristanek eta Maria Trinidad Antolin bere emazteak zuzentzen dute zirkoa. Euren zazpi seme-alabak ere zirkoan ari dira. Gaur egun zirkoak ez du lehen beste ikusle erakartzen. Sacristanen ustez, "zirkoaren garairik onena 1960-1975 urte bitartekoa izan zen, baina telebis-

tak eta hainbat zirko konpainiak aurkeztutako ikuskizun txarrek ere zirkoaren krisia ekarri dute. Gaur egun ez da errentagarria, zirkoa hiltzen ari da eta oso laguntza gutxi jasotzen dugu aurrera egiteko. Kultura Ministeritzak milioi bat pezetako laguntza eman digu eta diru kopuru horrekin gasoilerako ere ez zaigu heltzen... Gure moduko zirko familiarrekin ez dira batere akordatzen. Hemen jende asko ari gara zirkotik bi-

Goiko argazkian Arham Sahari. Shira bere emaztearen laguntzaz, krokodiloekin lan egiten du. Gasteizko jaietan krokodilo batek zauriak eragin zizkion Arhami.



guztiok ofizio bat baino gehiago bete beharra dauka. Pistan ez dagoenak, ba, palomitak saltzen ditu emaldian... Beti dago zerbait egiteko eta egunean 25 orduz egiten dugu lan hemen”.

### Tradizioa

Ramon eta Maria Trinidaden seme-alabak ere zirkoan jaio eta bertan lan egiten dute. Justok eta Ramonek, Ruben lehengusuarekin batera, pailazoen ikuskizun klasikoa egiten dute. Euren hitzetan oraindik ere saiorik arrakas-

zitzen eta Bergaran adibidez, zabaldu aurretik, milioi erdi pezetako gastuak izan ditugu. Leku askotan ez digute inolako erreztasunik ematen. Euskal Herriko herri askotan, adibidez, euskara ez jakiteagatik, ez dizute zirkoa jartzen lagatzen. Ez zait bidezkoa iruditzen”. Ramonen familiak betidanik zirkoarekin izan duen loturak aurrera egitera bultzatzen du: “Nire arbasoek ere

zirkoan lan egin zuten, bosgarren belaunaldikoa naiz ni eta, normala denez, txikitatik odolean daramazu zirkoa. Beti bizi izan naiz zirkoan eta hori ezin da egun batetik bestera ahaztu”. Nomaden antzera, bizileku finkorik ez dute, bizi-modu gogorra da zirkokoa: “Bai, lan asko eskatzen du: zirkoa montatu, jaso, baimenak lortu, animaliak zaindu... Hemen ez dago atsedean egunik eta

tatsuenetakoa da. Justok azaltzen digunez, “jan egin behar genuen eta horregatik hasi ginen honetan. Oso polita da jendearen barrea piztea eta alde horretatik eskerroneko lana da gurea. Hiru pailazo irtetzen gara, betiko eskemarekin: pailazo listoa, tontoa eta oraindik tontoagoa dena”. Baina, zer behar da pailazo on bat izateko? Justoren ustez, bi gauza beharrezkoak dira: maisu onak izatea eta zirkoa barruan eramatea. Ramon bere aitak gaineratzen duen moduan, “hauek oso maisu onak izan dituzte: Chicharro, nire aitona, pla-

***“Guztiok ofizio bat baino gehiago betetzen dugu. Pistan ez dagoenak ba palomitak saltzen ditu” RAMON SACRISTAN***

## Tigre bergararrak

Martitzenean lehen tigre bergararrak jaio ziren Holiday zirkoan, Beheko Estazioan. “Sacha” izeneko Bengalako tigre batek hiru tigrekume ekarri zituen mundura goizeko ordu bietan. Erditza arazorik gabe izan zen eta goizeko lehen orduan hurbildu zen herriko albatari bat erditza zertifikatzera. Tigrekumeen aita, Siberia aldeko “Rambo” tigrea, harro-harro zegoen gertu zituen txikiekin. Harro eta pozik, “Rambo”k ez baitzuen haserterik agertzen zirkora hurbildutako jendeak eta argazkilariek agertzen zuten kuriositatearen aurrean. Oraindik ez diete izenik jarri tigrekumeei. Redy Cristiani tigre eta lehoiekin aritzen den hezitzaile italiarraren arabera, “tigrekumeak, gutxienez urtebete izan arte ezin izango dira atera pistara eta, jaiotzetik ezagutzean, errezagoa izango da zirko lanerako gertatzea. Hezitzaile lana zela ikasten den? Normalean gurasoengandik, belaunaldiz belaunaldi transmititzen den ofizioa da. Praktikarekin beldurra galtzen da eta,

oraingoz behintzat, ez dut inolako istripurik izan”. “Sacha” tigrekumeen amak ez du inolako oporrik izango eta astebukaera honetan bertan lanean aritu behar da zirkoko beste animaliekin batera: dromedarioak, gameluak, krokodiloak, sugeak, ponyak, bufalok, ostrokak, lllamak edota hezitako ahateak. Ramon Sacristan gerenteak azaltzen digunez, “animaliak honetan aritzen diren inportatzaileengandik lortzen ditugu, baina gaur egun oso nekeza da babestutako espezie asko dago eta. Animaliak izaten jarraitzeko modu bakarra zirkoan bertan erreproduzitzea izaten da”.



zarik plaza aktuatzen zuen pailazo klasiko bat izan zen eta nire aita, berriz, Pepe Tonetti famatuaren maisua". Bestalde, Justo eta Ramonen arreba batek, Mercek, trapezistarena egiten du eta 1991n saritua egin zuten Montecarloko Nazioarteko Zirko Jaialdian. Ramonen arabera, "zirkoan trukoak bakarrik magia saioan izaten dira. Beste guztia erreala da eta jauzietan edota animaliekin lan egitean egunero izaten da arriskua. Azken batean, jendeari ere hori gustatzen zaio". Gaur egun zirkoira joaten den publikoari dagokionez ere aldaketa nabariak izan dira: "helduak haurrak baino gehiago etortzen dira gaur. Lehen 12-20 urte bitarteko gazte jende asko etortzen zen, adin horietakoak ziren nagusi eta gaur egun interesa galdu dute. Baina jende helduari oraindik ere gustatzen zaio zirkoa".

### Ikuskizun klasikoa

Zirko ikuskizunak ez du aldaketa haundiegirik izan urtetan. Ikuskizun klasikoa da eta, pailazoekin batera, malabaristak, magoak, faki-rrak edota hezitzaileak irtezen dira pista. Arham Sahari eta Shira bere emazteak krokodiloekin egiten dute lan. Arham hiru aldiz saritu dute Montecarlon. Baina arriskua gertu dago beti; joan zen abuztuaren 10ean, Gasteizko jaietan, krokodilo batek zauriak eragin zizkion eskuan eta hiru hilabetez aktuatu ezinda egon da. Bere hitzetan, "ezin da beldurrik izan espektakuloan, bestela hobe ez iretzea". Arham mundu osoan lanean ibilitakoa da eta zazpi hizkuntza menderatzen ditu. Ingelesa da eta, zirkoakoa bizimodu gogorra dela aitortu arren, lanbide gogorrak badirela esan digu. Arhamek azaldu digunez, "duela urte batzuk zirkorako zaletasun handia zegoen Espainian, baina aspaldi honetan asko galdu da hori. Ekialdeko herrialdeetan hemen baino afizio gehiago dago: hiri haundi guztietan zirko iraunkorra dago eta jendea hemen baino ohituago dago zirkoira joaten".

Arham eta Shira senar-emazteekin Allan Dickson bizi da: "Etxekoa banintz

## "Zirkoko saioak hobetu arren, ikusle kopuruak behera egin du eta ez dut arrazoirik aurkitzen" ALLAN DICKSON

Ezkerreko orrialdean Justo Sacristan. Ramon anaia eta Ruben lehengusuarekin batera pailazoen saioa egiten du.

Behoko argazkian Ramon Sacristan, zirko gurentea. Bere arbasoek ere zirkoan lan egin zuten, zirkoan ari den bosgarren belaunaldikoa da bera. Sacristanen ustetan zirkoa hiltzen ari da.



moduan hartu ninduten" diosku. Manchesterrekoa da bera eta, ipotxa izanik, ingelesezko ohizko umore finarekin, zirkoan txikia zenetik ari dela esan digu. Berak ahate eta ostrukekin egiten du saioa eta, bere ustetan, gaur eguneko zirkoan lehen baino saio hobeak egiten dira: "saioak asko hobetu dira denborarekin. Adibidez, garai batean jauzi mortal bikoitza zena, laukoitza da gaur. Dena den, saioak hobetu arren, ikusle kopuruak behera egin du. Lehen izugarriko ikusmina sortzen genuen herrietara heltzean, haurren artean batez ere, eta gaur, eskolatik irten eta gure ondortik pasatu arren, ez digute kasorik egiten. Jendeak zirkoa etortzeari laga dio eta nik neuk ez dut horretarako arrazoirik aurkitzen". Adi beraz: emakume, gizon, haur eta gazte... ikuskizuna hastera doa. B

# Labegaraietako futbito txapelketa

## partiduak

### ZAPATUAN KANPOAN

- 09:30: Amilotx-La Peña DML
- 10:30: Manitou-Shaktale
- 11:30: Azpeitxi J.-Mongatxurra
- 12:30: Bildurbarek-OH Zerezos
- 16:00: A Ze Flaxa Etxagi-Etxagi
- 17:00: Uve Bikoitza-Moskis
- 18:00: Artusamak-Ufala
- 19:00: Usoa-Igandekoak

- Shaktale**
- Amilotx**
- OH Zerezos**
- Azpeitxi J.**
- Uve Bikoitza**
- A Ze Flaxa**
- Moskis**
- Ufala**

### DOMEKAN BARRUAN

- 09:30: Patatus-Txipiron
- 10:30: Autoberezi-Mrw
- 11:30: Erdibiterrak-Ganbara Ari Ari
- 12:30: Bar Ganbara-Eri Sirimiri
- 16:00: Guadalest-Agirrebeña
- 17:00: Amozkibar-Slo
- 18:00: Fac-Ezinleike
- 19:00: Bayer-La Juve

- Igandekoak**
- Ari Ari Ganbara**
- Autoberezi**
- Erdibiterrak**
- Amozkibar**
- Guadalest**
- Slo**
- Fac**

### DOMEKAN KANPOAN

- 10:30: Polideportivo T.-Gazteak
- 11:30: Indargarri-Aldoka Maldoka
- 12:30: Komando P.-Jakina P. T.
- 16:00: Errotagain-Pagomendi
- 17:00: Agiñaspi-Arloteak
- 18:00: Orzi-Bar Canalejas

- Indargarri**
- Gazteak**
- Aldoka M.**
- Arloteak**
- Orzi**
- Agiñaspi**

## argi!

### Antolatzaile berriak

Gabonak baino lehen antolatzaile askok antolaketa batzordea laga zuten eta horiek ordezkatzu jende berria sartu da. Antolatzaile berriak Amozkibar taldeko David Lopez de Abetxuko eta Ganbara Ari Arik Fernando Diaz eta Javier Pineda dira. Batzordea zabalik dago eta martitzen 18:00etan Kultur Etxean biltzen dira. Bestalde, antolaketa batzordeak partiduetan egiten diren faltak eta jokalarik kanporatuak aktetan apuntatzeko eskatu dute.

## sailkapenak

### Lehen maila

	P	J
1. Errotagain	28	12
2. A Ze Flaxa Etxagi	27	12
3. Mongatxurak	24	12
4. Pagomendi	22	12
5. Azpeitxi Jatetxea	20	12
6. Etxagi	15	12
7. Bildurbarek Opel/Lam	15	12
8. Bar Canalejas	14	12
9. Jauja OH Zerezos	10	12
10. Orzi	9	12
11. Agiñaspi	9	12
12. Arroteak/Oilagorra	7	12

### Bigarren maila


	P	J
1. Amozkibar	3	1
2. Artusamak	3	1
3. Bayer	3	1
4. Fac	3	1
5. Manitou	3	1
6. Shaktale	3	1
7. Agirrebeña Jatetxea	0	1
8. Ezinleike	0	1
9. Guadalest	0	1
10. La Juve	0	1
11. Slo	0	1
12. Ufala	0	1

### Hirugarren maila

	P	J
1. Eri Sirimiri	3	1
2. Uve Bikoitza	3	1
3. Jakina Patxaran Team	3	1
4. Moskis	3	1
5. Mrw	3	1
6. Aldoka Maldoka	0	1
7. Autoberezi	0	0
8. Bar Ganbara	0	1
9. Indargarri	0	1
10. Komando Piperrak	0	1
11. Matxakategi	0	1

### Laugarren maila

	P	J
1. Erdibiterrak	3	1
2. Etengabe	3	1
3. Igandekoak	3	1
4. Txipiron	3	1
5. La Peña DML	3	1
6. Amilotx	0	1
7. Ganbara Ari Ari	0	1
8. Gazteak	0	1
9. Patatus	0	1
10. Polideportivo Taberna	0	1
11. Usoa	0	0



**Xanti Iturbe**  
KOMANDO  
PIPERRAK

- G. Zer moduz zoazte txapelketan?
- E. Hirugarren mailan jokatzeko sailketa gara eta lehenengo partidua galdu egin dugu.
- G. Espero zenuten lehen fasea horrela bukatzea?
- E. Ez, onenekin jokatzeko asmoa genuen.
- G. Orain arte ikusi duzun talderik onena?
- E. Komando Piperrak.
- G. Txapelketako jokalaririk onena?
- E. Gure taldeko Xabier Zabaleta.
- G. Zer postutan jokatzan duzu?
- E. Gehienbat erdialdean jokatzan dut.
- Baina beste postuetan ere aritzen naiz.
- G. Golik sartu duzu?
- E. Ez, joan zen astean hasi nintzen jokatzan eta.
- G. Lesionatuta egon zara?
- E. Ez, orain apuratu naiz.
- G. Nondik dator Komando Piperrak izena?
- G. Parranda batean asmatu genuen.
- E. Real UEFArako sailkatuko da?
- G. Bai.
- E. Ligako jokalaririk onena?
- G. Juninho.
- E. Mundialde zeinek irabaziko du?
- G. Brasilek.



## gora eta behera

**Punteria fineko jokalaririk**  
Aritz Aranguren, Igor Alberdi, Jose Javier Zabaleta eta Iñigo Zabaletak launa gol sartu zituzten. ERI Sirimiri taldeak bikain hasi du bigarren fasea 12 gol sartu baitzion Komando Piperrak taldeari. Manitouk galdu barik jarraitzen du eta 11 gol sartu zizkion La Juveri.



**Falta gehiegi partidu bakar batean**  
A Ze Flaxak eta Canalejasek jokatuako partiduan 15 falta egin zituzten. Lagunarteko txapelketa izateko gehiegi izan daitezke.

## emaitzak

Etxagi-Errotagain	2-8
Pagomendi-Agiñaspi	4-2
Arloteak/Oilagorra-Azpeitxi Jatetxea	1-3
Mongatxurak-Bildurbarek Opel/Lam	0-1
Jauja OH Zerezos-Orzi	1-2
Bar Canalejas-A Ze Flaxa Etxagi	3-7
Agirrebeña Jatetxea-Artusamak	0-3
Shaktale-Guadalest	6-4
La Juve-Manitou	0-11
Slo-Bayer	2-4
Ezinleike-Amozkibar	4-5
Ufala-Fac	1-7
Moskis-Matxakategi	7-5
Aldoka Maldoka-Uve Bikoitza	0-6
Jakina Patxaran Team-Indargarri	4-2
Eri Sirimiri-Komando Piperrak	12-0
Mrw-Ganbara	3-2
Ganbara Ari Ari-Etengabe	4-6
Gazteak-Erdibiterrak	2-4
Txipiron-Polideportivo Taberna	4-3
La Peña DML-Patatus	3-2
Igandekoak-Amilotx	5-3

# ESKOLAKI KIROLAK

## IKUSI ETA IKASI

### ESKUBALOIA

#### Baloia jokatzeko aukera

Baloari bore eraginez eta eskuan hartu barik aurreratzeko aukera dago. Bote eragin eta gero, eskuaz hartzen bada ezin zaio berriz baloari bote eragin (dobleak). Baloia eskuetan eta boterik eragin barik hiru pausu emateko aukera dago. Aurkakoak baloia kontrolatuta duenean ezinezkoa da kentzea. Ezin da baloia jokatu belaunetik beherako edozein gorputzatalerkin.

KIROLA EUSKARAZ FITXAK



## TXINDARTAK

### Arazoak Ipintzako futbol zelaiekin

Joan zen zapatu goizean Ipintzako futbol partiduak 3 ordu laurdenetan atzeratu ziren. Infantil mailako partiduak atzeratu egin ziren eta 12:15en-tan benjaminek jokatu beharreko partiduak 12:45en-tan jokatu ziren. Gainera talde batzuk Ipintzan jokatu beharrean San Martinen jokatu zuten.

### Pilota txapelketak alebinentzat

Alebin mailako neska-mutiek pilota txapelketa izango dute zapatu goizean zehar Udal Pilotalekuan. Ikasleek pilotaren arau eta teknikak ikasteko aukeraz gain, txapelketatxoa izango dute.



### Aranzadi 6 taldea

Aranzadi 6 benjamin taldea Andoni Gomez, Ion Garitano, Iker Arazkonaga, Mikel Oregi, Ion Soto, Jokin Baltategi, Asier Crespo, Jokin Amasorrain eta Jokin Oregik osatzen dute. Golegile finak ditugu talde honetako jokalariek partidu bakar batean 14 gol sartu baitzituzten. Ikasle baino kirolari hobeak ei dira eta futbola da gehien gustatzen zaien kirola. Zapatu goizetan jaikitzea batzuei asko kostatzen zaiela esan digute; beste batzuek, berriz, jaikitzeo arazorik ez dutela diote. Halere, zapatu goizetan kirola egiten askoz hobeto daudela argi laga nahi izan dute. Arbitroen lanari buruz ados agertu dira taldeko jokalariz gutiak eta "oso txarrak" direla adierazi digute.



### Antzuola A taldea

Antzuola A benjamin taldea Maitane Mujika, Odei Arregi, Andoni Madariaga, Ander Arbulu, Aitor Jauregi, Asier Longares, Josune Iturbe, Maialen Legorburu eta Xabier Muruamendiarezek osatzen dute. Antzuolarrak bikain ari dira eta saskibaloitxoa irabazi egin zuten. Futboleant ere irabazteko asmoarekin irten dira eta oraingoz jokatutako partiduetan bikain ari dira. Esan bezala, futbol txapelketa ere irabazteko asmoarekin irten dira; baina esan digutenez Aranzadi A izango da areririk nagusiena. Kirolean aritzea eskolara joatea baino gustokoago dute eta zapatu goizetan goiz jaikitzea pixka bat kostatzen zaien arren, kirolari finak ditugu antzuolarrak.

## KARTELDEGIA

### FUTBOLA

#### Infantil/Neskak

Zapatua. Ipintza futbol zelaia.  
**09:00:** Ipintza DBH-S.FX. ikastola.  
**09:00:** Aranzadi-Elgeta.  
**10:00:** Mariaren Lagundia-Almen.

#### Infantil/Neskak

Zapatua. Ipintza futbol zelaia.  
**12:15:** Aranzadi-Almen.

#### Benjaminak

Zapatua. Ipintza futbol zelaia.  
**10:00:** Aranzadi 5-M. Lagundia A.  
**10:45:** Aranzadi 3-Aranzadi 4.  
**10:45:** Antzuola B-San Martin.  
**11:30:** Antzuola A-Aranzadi 1.  
**11:30:** Aranzadi 6-Elgeta.  
 Zapatua. San Martin ikastetxea  
**12:15:** Aranzadi 2-M. Lagundia B.

### ESKUBALOIA

#### Infantil/Neskak

Zapatua. Labegarieta kiroldegia.  
**11:00:** Aranzadi-Aozaraza 2.1

#### Infantil/Mutilak

Zapatua. Labegarieta kiroldegia.  
**10:00:** Mariaren Lagundia-Almen

### PILOTA

#### Alebinak/Neskak

Zapatua. Udal Pilotalekua.  
**12:00:** San Martin, Aranzadi 13 eta Aranzadi 14 lehian.

#### Alebinak/Mutilak

Zapatua. Udal Pilotalekua.  
**10:20:** Aranzadi 7, Aranzadi 8, M. Lagundia B. 09:30.  
 San Martin, Aranzadi 9 eta Aranzadi 10.  
**11:10:** Aranzadi 11, Mariaren Lagundia A eta Aranzadi 12.

### ARETO FUTBOLA

#### Infantil/Neskak

Zapatua. Miguel Altuna Institutua.  
**12:00:** Aranzadi-Eibar.

#### Infantil/Mutilak

Zapatua. M. Altuna Institutua.  
**13:00:** Ipintza A-M. Lagundia.  
**13:00:** Aranzadi 203-Los Chicos de Altuna  
**12:00:** Aranzadi 201-Aranzadi 202.

## Futbola



Lehen Erregionaleko taldeak Hernaniren aurka Ligako bigarren partidua galdu zuen. Nietoren mutilek azkenengo minutuan jasotako gol bat zela medio galdu zuten. Atzealdean Osoro eta Blanco zigortuen falta nabaritu zen. Domekan Kilimonen kontra jokalaria guztiak egongo dira, horien artean lesionaturik izan den Arkaitz Arana.

Gainontzeko taldeek emaitza bikainak lortu zituzten. Neskek 2 eta 0 irabazi zioten Usurbili. 2. mailako jubenilek igoera faseko lehenengo partidua irabazi zuten. Lehen mailako jubenilak 7 eta 0 irabazi zuen Eibarren eta 11 partidua daramatza galdu barik. Azkenik 2. mailako kadeteek 7 eta 0 irabazi zioten Antzuolari.

## Eskubaloia



Lehen maila territorialeko taldeak Hondarriabiaren aurka galdu egin zuen gol bakar batetik. Lijoren mutilek partidu ona jokatu zuten mailako bigarrenen kontra.

Ia partidu osoan zehar irabazten joan ondoren azkenengo 5 minutuetan galdu egin zuten. Zapatuan Legazpiren kontra jokatuko dute eta mailari eutsi nahi badiote, irabaztea derrigorrezkoa dute. Jubenil mailako mutilek galdu egin zuten Arrateren aurka eta fisikoki nahiko kaskar azaldu ziren. Asteburu honetan Urolaren aurka jokatuko dute kanpogan eta Josetxoren mutilak dira faborito nagusiak. Joan zen ihardunaldian atsedena izan ondoren kadete neskek Zestoaren kontra jokatuko dute Labegaraietan.

## Saskibaloia



BKEko saskibaloi talde nagusiak Calahorrari 5 puntuko aldearekin irabazi zion. Conderen mutilek partidu ona jokatu zuten eta lehenengo fasea bukatzeko 4 partidua geratzen direnean aukera asko dituzte onenen taldean sartzeko. Zapatu honetan bergarrek Aramaioren, azkenaren, kontra jokatuko dute eta derrigor irabazi behar dute. Junior mutilek Amigos del Baloncesto 9 puntugatik irabazi zioten eta ondo hasi dute 2. fasea.

Jubenil neskek Tolosaren kontra 3 puntugatik galdu zuten eta maila ona erakutsi zuten. Zapatuan Beasainen kontrako partiduan faboritoak dira BKEko neskek. Azkenik, kadete mutilek La Salleren kontra 16 punturengatik galdu zuten.

## KARTELDEGIA

## FUTBOLA

**Bergara-Amaiak Bat**

Lehen mailako jubenilak.

Zapatua. 16:00.

Ipintza futbol zelaia.

**Bergara-Kilimon**

Lehen mailako erregionala.

Domeka. 16:00.

Agorrosin futbol zelaia.

**Bergara-Lazkao**

Kadeteak.

Domeka. 11:30.

Ipintza futbol zelaia.

## ESKUBALOIA

**Bergara-Zestoa**

Zapatua. 16:00.

Kadete neskek.

Labegaraietako kiroldegia.

**Bergara Iraundi-Legazpia**

Zapatua. 17:15.

Senior mutilak.

Labegaraietako kiroldegia.

## SASKIBALOIA

**Bergara-Beasain**

Zapatua. 17:30.

Jubenil neskek.

Mariaren Lagundia.

**Bolsos Bergara-Aramai**

Zapatua. 19:00.

Senior mutilak.

Labegaraietako kiroldegia.

## PILOTA

**Kadete mailako****Bergarako torneo**

Eguakitza. 22:00.

Milikua-Herran.

Lamariano-Larrañaga.

Ondoren Euskal Ligako partidua jokatuko dira:

Junior banaka,

Gorka Martin-Beharzana.

Senior binaka,

Muruamendiarrak eta Idiakez-

Gernikako Arkupe taldea.

## JULEN ARANBURU / Pilotari eta futbolaria "Orain arte hamabost gol sartu ditut"

**Julen Aranburuk pilotan eta futbolean jokatzen du. Pilotan Deba Garaiko Baque Torneoko txapelketa irabazi du. Futbolean BKEko 2. mailako kadeteen jokatzen du eta Gipuzkoako Futbol Federakuntzak antolatzen duen Zumarragako eskolan arit da.**

**G.** Futbola ala pilota nahiago?  
**E.** Biak, baina futbola gehiago. Lagun asko ditut eta gainera aita entrenatzailea da.  
**G.** Joan zen urtean infantil mailan Gipuzkoako futbol txapelketa irabazi zenuten. Aurten zer moduz zabilzate?  
**E.** Liga bukatzeko 4 partidua falta dira. Lehen postuan gaude eta igoera fasea jokatzeko sail-

katuko garela uste dut.

**G.** Pilotan aurrean ala atzean jokatzen duzu?

**E.** Aurrean jokatzen dut eta eskumarekin ematen diot pilotari. Gantxoia asko gustatzen zait, baina ezkerrez botea hobetu behar dudala esaten didate.

**G.** Deba arko txapelketa hasi berri duzue. Zer helburu dituzu?

**E.** Leturiarekin jokatzen dut eta behintzat finalerdietarako sailkatzea espero dut.

**G.** Futbolean zer postutan jokatzen duzu?

**E.** Atzealdean eta aurrealdean jokatzen dut. Normalean atzean libre moduan jokatzen dut; baina galtzen ari garenean aurreratu egiten naute, golen bila joateko.



# Igerilariak Gipuzkoako Txapelketan

## Dominak lortzeko aukera asko dituzte

**Bergara Igeri Elkarteko kirolariak aurtengo denboraldian murgilduta daude. Hurrengo asteburuan Gipuzkoako txapelketa izango dute Zarautzeko igerilekuan.**

Bergara Igeri Elkarteko 6 kirolari izango dira datorren asteburuan Zarautzen jokatuko diren Gipuzkoako txapelketetan. Horietatik 4 neskek dira: Eneritz Muguruza, Eider Balzategi, Eli Alberdi eta Amaia Lazpiur.

Gizonezkoetan, berriz, Antxon Maiztegi eta Ion Sasigain arituko dira. Igerilariak ondo prestatuta joan beharko dute bakoitzak lau proba egin beharko baititu. Gainera, neskek erreleboetako hiru probetan parte



Igerilari bakoitzak 4 proba egingo ditu.

hartuko dute. Errelebo horiek 4x100 krol, 4x200 krol eta 4x100 estilo izango dira. Leire Zeziaga elkarteko entrenatzaileak esan digunez, Zarautzeko txapelketara

emaitza onak lortzeko itxaropenarekin doaz. "Denboraldia oso ondo hasi dugu. Ez gara gehiegi entrenatu eta halere, emaitza onak lortu ditugu. Oñatin igerilari

osoaren txapelketan emaitza onak lortu genituen. Eneritz Muguruza, gurekin entrenatu ez arren, txapelketa irabaztekotan izan zen. Txapelketa horretan hainbat probatan aritu behar izan ziren eta Gipuzkoako txapelketan bakoitza bere proban izango da" esan digu Leire Zeziagak.

Gipuzkoako txapelketan dominak lortzeko aukera asko daude eta Eneritz Muguruza 100 m krol, tximeleta eta bizkar probetan aukera handiak ditu. Nesken erreleboei dagokienez, 100 m estiloetan ere aukerak daude. Gipuzkoako txapelketaren ondoren, urtarrilaren 31n, Antxon Maiztegi Euskadiko infantil mailako txapelketara joango da.

## Emaitza desberdinak Deba Arroko Txapelketan

BKEko pilotariek Deba Arroko txapelketa hasi zuten joan zen martitzenean. Emaitza desberdinak izan ziren: infantil mailan Aranburu eta Leturiak 15 eta 22 galdu zuten; jubenil mailan, berriz, mailako txapeldunak diren Muguruza eta Redondok 22 eta 15 irabazi zuten. Senior mailan Muruamen-


diaraz eta Gutierrezek 22 eta 2 irabazi zuten. Partidu guztiak Oñatiren kontra jokatuta zizuten eta martitzenean Eskoriatzan jokatuko dute. Joan zen eguakitzean jokatuta behar zen junior mailako Euskadi Ligako partidua ez zen jokatuta BKEkoen aurkakoak, Lemoakoak, ez baitziren agertu.

## Nesken Futbito Txapelketak erantzun eskasa jaso du

Lagunak futbito elkarteak emakumezkoendako antolatuta nahi duen futbito txapelketarako deialdiak erantzun eskasa jaso du.

Joan zen martitzenean Kultur Etxean egindako bilerara bakarrik 3 talde agertu ziren. Mikel Fernandez txapelketaren antolatzaileak adierazi digunez: "bakarrik 3

talde etorri dira bilerara. Beste talde batzuek txapelketan parte hartzeko interesa dutela badakigu, baina entrenamenduak direla eta ez dira etorri. Horregatik, otsailaren 3an beste bilera bat egingo dugu eta hor txapelketaren egutegia zehaztuko dugu. Bilera 18:45etan izango da Kultur Etxean".



Irizar 2  
☎ 76 14 95

**JAUJA KIROLAK**



**KORTA-ZAR**  
**Txokolategia**

*Pintxo eta ogibitartekoen  
espezialitatea*

**OSTIRALETAN GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK**

Barrenkalea 16 ☎ 76 20 62


**PINTXO eta BOKADILOAK  
SEKULAKO MARTXA!!**

**EUXEBIO II**

Irala z/g ☎ 76 07 92

**Gida**

**98**



**BERGARA  
ANTZUOLA**

Berrigara

**Gida komertziala**

•  
**Partikularren telefonoak**

•  
**Intereseko telefonoak**

*Bergara eta Antzuolako ia telefono guztiak  
200 orrialdeko liburutxoan.*

**DATORREN EGUAKITZEAN  
BERRIGARAREKIN BATERA ETXEAN**



**LORAMENDIN**

**%30**

- Forro polarrak
- Txamarrak
- Txandalak
- Sudaderak eta abar

**BEHERAPENAK!**

**Zapatilak**

**%20-50**

**San Andres eta Garibain, Arrasaten**



**1. ETXEBIZITZAK****Saldu**

Pisua salgai Aranerrekan. 76 42 65 (gauetz).

Pisua salgai A. Fleming kalean. 76 56 99.

Pisu amueblatua salgai. Berria, 90 m2. 76 51 51.

**Errentan hartzeko**

Pisua alokairuan hartuko nuke. 76 11 12.

Pisua hartuko nuke alokairuan. 76 41 16.

Pisu txiki bat alokatuko nuke. 76 04 57.

**2. GARAJEAK****Saldu**

Garajea salgai Kruz Galastegin. 76 27 61.

Garajea salgai Martokon. 76 35 50.

Garajea salgai Masterekan. 78 36 65 (20:00-22:00).

Garajea salgai Masterekan. 76 24 57.

Garajea salgai San Lorentzon. 76 45 60/51 45.

Garajea salgai Ibargarai kalean. Milioi bat. 76 21 61.

Garajea salgai Espoioian. 76 18 28.

Garajea salgai San Antonion. 76 15 37.

**Errentan emateko**

Garaje bikoitza alokairuan Torrekan. 763032.

Garajea alokairuan Ibargarai 37an. 76 3376.

Garajea alokairuan Ibargarai kalean. Deitu 76 16 38 telefonora.

# Iragarki sailkatuak

**Iragarki sailkatuen sailean oso erreza da zurea jartzea.**

Deitu 76 03 97 telefonora edo zatoz Berrigarara. Partikularren iragarkiak doan jarriko ditugu. Inmobiliaria edo auto kontzesionarioenak, ostera, 1.100 PTA ordaindu behar da modulo bakoitza. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Eguasten eguerdia baino lehen jasotako iragarkiak argitaratuko ditugu.

**Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!****1. ETXEBIZITZAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**4. INMOBILIARIAK****5. LANA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**6. IRAKASKUNTZA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**7. MOTORRA**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**8. KONTZESIONARIOAK****9. ANIMALIAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**10. DENETARIK**

Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

**11. HARREMANAK**

Agurrak  
Kontaktuak  
Deiak  
Bestelakoak

**9. ANIMALIAK****Saldu**

Pastor aleman txakurkumeak. 76 08 21 (Unai).

**Bestelakoak**

Pastor aleman txakurkumeak (arrak) oparitzen 78 19 43/22 41.

Untxien kaiolak oparitzen ditut. 76 08 18.

**10. DENETARIK****Saldu**

Altzariak prezio oso onean salgai. 76 30 93.

Vitus bizikleta egoera onean salgai. 76 08 21(20:00- 22:00).

Denda baterako moduko apala, mostradorea, euskarria eta makina-erregistradora prezio onean salgai. 76 25 67.

Pioneer musika-ekipoa salgai. 907 40 28 27.

Aprilia rally motorra (49 c.c.) salgai. 76 62 24.

**Erosi**

Diska-singleak erosten ditut. 52 67 77.

**Galdu**

Balore sentimental haundiko erloju bat galdu zait. 76 39 33, Nuria.

Urrezko pultsera bat galdu dut. 76 39 50.

Gabonetan eraztun bat galdu nuen. 76 31 03.

Zilar-koloreko emakume-erlujua galdu dut Alkabieta-Seminario tartean. 76 17 18.

**Aurkitu**

Zubietan kartera bat aurkitu dut. 76 14 00.

**Errentan hartzeko**

Garajea/ganbara alokatuko genuke. 7650 00.

**3. LOKALAK****Saldu**

Lokala salgai edo alokairuan Masterekan. 150m<sup>2</sup>. 76 1189.

**Erosi**

Zona industrialean 70 m<sup>2</sup> inguruko lokala erosiko nuke. 76 29 95.

**Errentan emateko**

Alokairuan San Pedron. Bi pisu, 150 m<sup>2</sup>. 761164.

**Errentan hartzeko**

Prezio onean, lokala

alokairuan hartuko nuke Osintxun. 76 08 21.

**5. LANA****Eskaintzak**

Andre batek zaharrak zaindu edo etxeko garbiketarako egingo litzuzke. 76 00 90.

Neska batek astebukeretan helduak zaindu eta etxeko lanak egingo litzuzke. 76 56 66.

Neska tituludunak administratibo lanak egingo litzuzke. 907 94 06 67.

**Eskaerak**

Egun osoan heldu bat zaintzeko pertsona behar da. 76 00 85.

Tabernari euskalduna behar da Kortazar ta-

bernan. 76 20 62.

Taberna batean lan egiteko pertsona bat behar da. 76 51 20 (12:00etatik 13:00etara).

Eguzkitza erretagirako emakume/gizonezko bat behar da sukaldari lanetarako. 76 56 03 (11:00-16:00 edo 19:00etatik 22:00etara).

**6. IRAKASKUNTZA****Eskaintzak**

Ingeles klaseak ematen ditut. 76 17 18 (Jesus).

OHO klaseak Antzuolan. Deitu 78 71 32 telefonora.

Ingeles klaseak ematen ditut. 76 53 88 (Rosa).

Mate, fisika eta kimika. 76 24 31.

Mate klaseak ematen dira. 76 03 72 (Nerea).

Lizentziatu batek mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditu. Deitu 76 70 40 telefonora.

Mate, fisika eta informatika klaseak. Deitu 76 46 03 telefonora. OHO eta BBB klaseak ematen dira. Deitu 76 33 26telefonora.

Pintura eta marrazki klaseak ematen dira. Deitu 76 03 83 telefono-ra.

**Eskaerak**

Enpresaritzaren zientziarako irakaslea behar da matematika irakasteko Deitu 76 38 28 telefonora.

Frantses irakaslea behar da. Deitu 76 06 87 telefonora.

Jose Luis Irigoien, argazkilaria

## "Argazki taldeak oso garrantzitsuak dira"

**Eguastenean hasi zen Pol-Pol Argazki Taldeak antolatu duen argazki ikastaroa. Bi hilabetetan zehar, argazkigintzari buruzko klase teorikoak eta laborategiko teknika praktikokoak landuko dituzte dozena bat lagunek, Jose Luis Irigoien eibartarraren aginduetara. Ikastaroa hasi aurretik, berarekin berba egin genuen.**

**G.** Zer erakutsiko duzu ikastaroan?

**E.** Ez da hastapen ikastaroa izango, argazkigintzari buruzko teknikan murgilduko gara. Argazki onak ateratzeko eta dauzkagun ideiak islatzeko oinarrikoa da teknika menperatzea. Esate baterako, zuri-beltzeko teknikak oso jende gutxik menperatzen ditu eta hori igarri egiten da lehiaketetan: batzuek oso ideia onak dituzte, baina teknika menperatzen ez dutenez, ez dute islatzen adierazi nahi duten guztia; teknika ondo menperatzen dutenek, berriaz, argazki onak ateratzen dituzte. Hortaz, nik dakizkidan teknikak erakutsi nahi dizkiet nire ikasleei.

**G.** Zuri-beltza ala kolorea landuko duzue?

**E.** Zuri-beltzeko argazkien oinarriko teknikekin hasiko gara. Orain dela 50 urte Ansel Adams eta Minor White estatu batuarrak erabiltzen hasi ziren Zonen sistema aztertuko dugu. Hau da, argia nola eta zertarako neurtzen den jakiten saiatuko gara. Argazki bat atera aurretik, oso garrantzitsua da jakitea nolako argazkia atera nahi dugun, argazki bat ateratzea prozesu kreatibo bat delako. Zer lortu nahi dugun dakigunean, metodo bat jarraituko dugu hori lortzeko. Mundu osoan ospetsua



Jaiotzez santurtziarra, 15 urte daramatza Eibarren bizitzen.

den Frantziako Argazki Eskola Nazionalan, Arlesen, Zonen sistema erabiltzen dute. Frantziako argazkilaria onenek ikasten dute bertan.

**G.** Zer behar da argazkilaria ona izateko?

**E.** Sormena izan behar da, teknika ikasi egin daitekeelako. Sentsibiltate berezia izan behar da eta afizio handia. Argazkilaritza garesti samarra da eta ordu piloa sartu behar dira argazki onak ateratzeko. Euskal Herrian, zorionez, argazki talde asko dago eta oso egokiak dira argazkiak ateratzen ikaste-

ko. Euskal Herrian ez dago eskola profesional onik, kasik samarrak dira. Horregatik argazki taldeak oso garrantzitsuak dira.

**G.** Zer eratako argazkiak gustatzen zaizkizu?

**E.** Normalean zuri-beltzeko argazkiak egiten ditut, baina baita koloretakoak ere, eta mota askotakoak, paisaiak, bilutsiak, erretratuak... Hori bai, gai bat edo teknika bat hartu eta bildumak egiten ditut, argazkiak ondo landu eta menperatzeko modurik egokiena da. Hori ez da erraza: argazki on bat egin daiteke, baina 30 egitea gaitzagoa da. Egin dudan azken lana Kubari buruzko 75 argazkitako bilduma da. Nire ikuspegitik Kuba zer den islatu nahi izan dut. Une honetan, milatik gora argazki ditut erakusketak antolatzeko. Urtean zazpi bat erakusketa egiten ditut eta oso bilduma ezberdinak izaten dira. Bestalde, Egin eta El Correo egunkarietan, euskal argazkilarien bi liburutan edota hainbat katalogotan argitaratu ditut; baita hainbat liburutako azalak ilustratzeko.

**G.** Zer iritzi daukazu argazkilaritza digitalari buruz?

**E.** Teknika edo erraminta berri bat da, baina ez dut uste horrek ohiko argazkilaritzaren desagerpena ekarriko duenik. Beste sentsibiltate bat dauka eta aukera handiak eskaintzen ditu, baina inpresorek oraindik ez dute kalitate onik eskaintzen. **B**

**BEHEKO  
TABERNA**

**Menestra eta konejoa  
dira gure berezitasunak**

ANGIOZAR Tf.: 76 55 74

**Bolintx**  
OKINDEGIA

**domeketan zabalik  
eta zapatu  
arratsaldeetan 17:00etatik  
20:30etara**

Zurradero 2 behea Telefonoa 76 01 26

**IBARGUREN  
PENTSUAK**

BIONA pentsuen biltegia,  
BIOTER produktuak,  
haziak eta bestelako nekazal produktuak

San Pedro 3 Tf. 76 23 79

PENTSUAK  
**Biona**  
BANATZAILEA

# Amodiozko Gutunen lehiaketa

## Euskal Herri osotik bidalitako 128 karta jaso dira

**Jardunek antolatzen duen Amodiozko Gutunen Berrigara Lehiaketako VI. edizioan lanak entregatzeko epea eguastenean itxi zen. Orain arte 128 gutun jaso dira, baina hurrengo egunotan gehiago jasotzea espero dute antolatzaileek, epearen barruan bidalita egon arren, korreoa dela eta atzeratuta helduko direnak izango baitira.**

Gutun gehienak Gipuzkoa eta Bizkaitik jaso dira, baina Euskal Herri osotik bidali dituzte, esate baterako, Iparraldetik bost gutun jaso dira.

Aurtengo epai-mahaia Migel Angel Elustondo Ipurbeltz aldizkariko zuzendariak, Jon Maia bertsolariak, Maider Zabalegi trikitilariak, Alaitz eta Maider bikotekoak, eta Juan Martin Elexpuru idazleak osatuko dute. Irakurlearen saria emango duen epai-mahaia, ostera, herriko ikastetxe ertainetako ikasleek osatuko dute.

Banatuko diren sariak honako hauek dira: 75.000 pezeta irabazlearentzat, 40.000 pezeta bigarrenarentzat

eta 25.000 bergarar onenarentzat; irakurle gazteek emandako sarituak Xabier de Zerrioren eskultura bat jasoko du. Sari banaketa ekitaldia San Balentin egunean, otsailak 14, izango da Gartzela Zaharrean eguerdiko 12:00etan.

### Amodiozko gutunen liburua

Aurtengo irabazleen kartak eta aurreko edizioetan sarituak izan direnak jasoko dituen liburua kaleratuko da datorren edizioan. "Udazken aldera, hurrengo ediziorako deia zabaltzen denean, argitaratuko da liburua. Durangoko azoka eta Gabonak gertuan daudenez, liburua saltzeko egun aproposak dira" esan digu Eba Alberdik, Jarduneko dinamizatzaileak.

Sei edizioetan saritutakoen gutunak, argazkiak eta datuak, eurek idatzitako zitak eta edizio bakoitzaren hainbat datu bilduko dira liburuan. Horrez gain, Jardunek idatzitako hitzaurrea eta orain dela bi urte epai-mahaikide izan zen Patxi Zubizarreta idazlearen kolaborazioa ere jasoko ditu liburuak. B

### erreseinak



Deba bailarako euskara eta kirol zerbitzuak

#### Sasoian

Ariketak egiteko bideoa. VHS

Deba bailarako euskara eta kirol zerbitzuek hainbat kirol material kaleratu dituzte euskaraz. Bi liburuk, bi fitxa didaktikok eta bideo batek osatzen dute bilduma: "Futbol entrenatzailea", "Kirol entrenamendua oinarriak", "Beroketa, eskubaloia, rugbya, saskibaloia: entrenatzaile eta irakasleentzako fitxa didaktikoak", "Atletismoa-futbola: entrenatzaile eta irakasleentzako fitxa didaktikoak" eta hemen aurkezten dizugun "Sasoian: zure kirol programa" bideoa. Bideoan hiru maila bereizten dira eta bakoitzean bi programa: bat erresistentzia hobetzeko eta bestea giharrak tonifikatzeko. Maider Egüesek etxean egiteko ariketa praktikoak eskaintzen dizkizu.

- 60 minutu. 1.500 PTA.



Itoiz  
**Ambulance**  
Pop-rock

Itoiz taldearen estudioko azken diskoa CD formatoan kaleratu berri du Elkarlanean disketxeak, bilduma osoa -zazpi disko- osatuz. Taldearen agurraren zuzeneko diskoaren aurretik, pop tankerako sei kantuz osatutako mini-LP hau kaleratu zen 1988an. Taldeak sormen mailarik onenean laga bagintuen ere, "Ambulance", "Elurretan" edo "Zuk ez duzu nahi" ederrak soinu digitalean entzuteko aukera duzu orain.

- Elkarlanean. 1.800 PTA.



Argazkian, orain dela bi urte saritutakoak. Aurtengo edizioa irabazleak San Balentin eguna baino egun batzuk lehenago emango du jakitera epai-mahaia.

## ETXEPARE-BILINTX

### LIBURUDENDA



Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

## ARREGI

Eraikuntza  
materialeak

Biltegia Tellerian, Labegaraian.  
Tf. 76 27 93

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

**Ezker eskuin**

1. Herri batean bizi diren lagunak. 2. Zoroak. Adi!  
 3. Premiazko egoera. 4. Gipuzkoako herria. Erabat. 5. Ongi, ondo. Errepikatuz, gorotza. Oxigenoa. 6. Nauka. Bibliako pertsonaia. Eistenioa 7. Nor, pluralean. Ukimenduak.  
 8. Berrogeita hamar. Nafarroako herria. Zero. 9. Toka, dut. Kasik. Kontsonante bikoitza. 10. Pl., landare mota. Portua.

**Goitik behera**

1. Guraso eta seme-alaben arteko ondore-maila. 2. Laidoak. Ald., heu. 3. Erotu. Baiezatzeko 4. Jatorri atzizkia. Sufrea. Ehun mota. 5. Frantziako hegoaldeko lurraldea. Potasioa.  
 6. Nitrogenoa. Kaxaren erdian. Hosto. 7. Txorakeria. 8. Zati bi. India. Lehenengoa. 9. Landare mota. Bizkaiko herria. Litia. 10. Suari dariona. Azala, bereziki gogorra.

**Soluzioa**

9 Anli. Ea. Li. 10. Kea. Oskola  
 7. Leokerak. 8. Erdian. In. A.  
 5. Aktaria. K. 6. N. Ax. Omi.  
 3. Zoratu. Bai. 4. Tar. S. Zeta.  
 1. Belunaldi. 2. Iraink. Ih.  
 Goitik behera  
 10. Ihiak. Kala.  
 8. L. Beain. O. 9. Diat. la. Li.  
 Es. 7. Ak. Ziriak.  
 5. Untsa. Ka. O. 6. Nau. Noe.  
 3. Larmaldia. 4. Ala. Txoil.  
 1. Biztanleak. 2. Eroak. Erne.  
 Ezker eskuin

bonofotoa



Miguel Angel Elkorobereibar

**Bergarako zein kaletan aurkitu dezakegu inskripzio hau?**

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetako irabazleak eta berak aukeratutako lagunak **Gaspar** jatetxean izango dute afaria



Aurreko aleko saria, **Jose Luis Sasiainek** jaso du: Zumelaga jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Jose Luisi!  
 Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Gorla-Zuri**. Galde Debalde: **1-B, 2-C, 3-B**.

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izena-deitura: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri edo bidali txartela eguazten eguerdirako Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**



**Gaspar**

JATETXEA, TXOKOLATEGIA, SELF-SERVICE-a

Barrenkalea 31 Tf. 76 20 02 BERGARA

**BKEko direktiboaz gain, Miguel Angel "Piti" Unamuno Peña Madridista Mahonera-ko presidentea dugu. Bertan 80 lagun (40 bat bergararrak) biltzen dira. Hurrengo irteera Anoetan Reala eta Madrilek jokatuko duten partidura egingo dute.**

# 'Piti' Unamuno



## Nolatan Madrilekoa?

Beti gustatu zait zela jokatzen duen eta historia polita dauka.

## Ados Gobernuaren ekipoa dela esaten dutenekin?

Ez.

## Zenbat aldiz izan zara Bernabeu futbol zelaian?

Bitan, azken aldiz orain 12 bat urte.

## Arraroa egin zitzaizen Madrilekoei hemen peña bat osatzea?

Hasieran bai baina asko animatu gintuzten.

## Lagunek zer esaten dizute?

Kaskauta nagoela.

## Madrilzale asko al da Euskal Herrian?

Uste baino gehiago, askok ez dute esaten.

## Barççak jarraitzaile gehiago ditu...

Bai, Bakero eta Txiki hara joan zirenetik...

## Madrilek izan duen talderik onena?

"Buitrearen Kinta"koa oso ona zen.

## Sanz ala Mendoza?

Sanz.

## Heynckes ala Capello?

Capello, zorrotzagoa delako.

## "Marca" ala "As"?

Marca leitzen dut egunero.

## Butragueño ala Raul?

Butragueño.

## Jokalaririk onena?

Stielike gustatzen zitzaidan niri.

## Eta orain munduko onena, zein?

Ronaldo.

## Madrileko kamiseta jantziko al du?

Gustatuko litzaidake baina nekez ikusten dut.

## Iritsiko al da 7. Europako Kopa Madrilerera?

Puffff!! Joko ona eta suertea behar...

## Finalera heltzekotan, joango zinateke ikustera?

Joateko asmoa badaukat...

## Zure bigarren ekipoa, zein?

Reala.

## Nork amaituko du aurretik ligan, Realak ala Athletic-ek?

Athletic-ek.

## Kirola ikusi ala praktikatu?

Ikusi. Gaur egun oso kirol gutxi egiten dut.

## Hobby bat?

Leitzea.

## Liburu bat gomendatzekotan?

"Bajo el sol de Kenia", Barbara Wood-ena, asko gustatu zait.

## Filme bat?

"Philadelphia".

## Kinielarik egiten duzu?

Ez, loterian jokatzen dut bakarrik.

## 200 milioi irabazita, zer egingo zenuke?

Lanari laga eta ondo bizi. B

## ZUBIETA

elektragarintza

MOTORREN BOBINAKETA,  
ERA GUZTETAKO  
INSTALAKUNTZAK.

Kruz Gallastegi 2 behea  
☎ 76 23 48

## ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra,  
poliuretanoa... Leihoak,  
ateak, manparak...

Eska ezazu  
aurrekontua konpromezu barik

Erakusketa: Masterreka 14 behea  
BERGARA  
Tf.: 76 55 02 Faxa: 77 11 30


## ARDATZA

Brikolaketa

Ateak eta zokaloak  
Horma armairuak  
Sarrailak eta manilak  
Koadroen enmarkazioak  
Era guztietako moldurak

Apalak  
Kajoiak

Masterreka 4 behea  
☎ 76 18 93



A. Fleming 5  
BERGARA  
Mobilak:  
907 44 50 38  
907 46 57 38



Gozogintzan  
aintzindari.



## Ospitaleko futbol txapelketa

Saso batean ospital zaharrean, Mizpirualde egoitzaren aurrealdeko plazatxoan, jokatzen ziren herriko taldeen arteko futbol txapelketak. Garai bateko Bergarako harrobiko jokalariek han ibiltzen ziren baloiari ostikoka.

Aste honetako argazkia 1953. urtekoa da eta bertan agertzen direnek 13-14 bat urte izango zituzten. BKEko jolakari ezagunak izandakoak agertzen dira Jabier Madinabeitia entrenatzailearekin. Honako hauek dira argazkian agertzen direnen izen eta abizenak, ezkerretik eskumara.

**Zutik:** Juan Carlos Garitano, Agustin Albisua, Agustin Larrañaga, Pedro Larrañaga, Jabier Beiztegi, Bixente Zurbano eta Jabier Madinabeitia.

**Makurtuta:** Victoriano Gallastegi, Luis Unzurrunzaga, Anton Garitano, Mateo Salaberria eta Francisco Igartua "Patxikin".

*Argazkia:* Francisco Igartua.

### OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!

Industria  Industriaren  
hornikuntzak UNIFE alde

**MEMESA S.L.**

Nafarroa etorbidea 9 ARRASATE  
Tf. 79 42 22 • F. 79 47 89  
Santa Kruz 25 ARETXABALETA  
Tf. 77 11 75 • F. 77 13 08



**zumelaga**

JATETXEA

**ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA  
PREZIOAN PAREKORIK EZ!**

San Antonio 5 BERGARA ☎ 76 20 21

**DENA  
100etik**

**ZURE OPARENTZAKO**

Simon Arrieta 3

# BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

## Matrikulaldia zabalik


ALFABETATZE,  
EUSKALDUNTZE eta  
EGA ikastaroak  
(otsaila-ekaina),  
plazak dauden taldeetan integratzeko.

Bekatzeko sistema eta diru-laguntzak dauzkagu.


16 urtez gorakoendako.

**izena emateko epea: urtarrilaren 19tik 30era.**

**Bulego ordutegia**  
Goizez 08:30-12:30  
Arratsaldez 14:30-19:00



**BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA**  
Zabalotegi 13  
Telefonoa eta faxa: 76 44 53



**OKENDO  
KIROLAK**

**KIROL MODA GUZTIA  
DESKONTU BEREZIEKIN!**

**TXAMARRAK • TXANDALAK • ZAPATILAK**

